

Eraikal-en hamar deialdi
(1998-2008), agente
sustatzaileen esperientziak.



2009ko azaroa

Aurkezpena

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak 1998an abiarazi zuen **Eraikal** programa, "Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresetan kalitatea kudeatzeko sistemak ezartzeko eta hobetzeko laguntzen lehen programaren" aurkezpena egin zuenean. 2001etik aurrera Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak hartu du programaren ardura eta 2008an **Eraikal** programaren hamargarren deialdia egin da.

Gero eta enpresa gehiagok parte hartzen du **Eraikal** programaren laguntzen deialdietan eta hainbat arauben arabera lortutako ziurtapen kopurua areagotzen ari da halaber. Modu horretan, laguntza-euskarri eta erreferentzia bihurtu da **Eraikal** EAeko bizitegi-eraikuntzaren sektoreak etengabeko hobekuntza lortzeko ekindako ibilbidean, eta enpresa-estrategiaren barruan iraunkortasuna eta berrikuntza barne hartzeko balio izan du gainera.

Enpresa-elkarteek, elkargo profesionalek eta enpresa eragileek **Eraikal** programaren lehen hamar deialdietan agente sustatzaile gisa izandako esperientziak erakusten dira agiri honetan. Aipatutako eragile guztiak funtsezko pieza bat dira programaren barruan, administrazioaren eta diru laguntzaren onuradun diren enpresen arteko harremana errazten dutelako; sentsibilizazio-lan handia egiten dute **Eraikal** programaren helburuak aditzera emateko eta bitartekari-lanak betetzen dituzte programari berari dagokion kudeaketan, hala nola, proiektuak prestatzen direnean, horien jarraipena egitean, ordainketen kudeaketa egitean, emaitzak ezagutzera ematean, eta abar.

Agiri honek **Eraikal** programari buruz egindako hausnarketa erakusten du. Agiriaren aurkezpena bat dator denboran Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak 2009ko irailean egindako hamaikagarren deialdiarekin, eta ekimenari jarraikortasuna ematen zaio modu horretan.

2009ko urria

AURKIBIDEA

1. ZER DA ERAIKAL?	1
2. AGIRIAREN XEDEA	3
3. ERAIKALen PARTE HARTZEN DUTEN AGENTEAK	3
4. LANAREN DESKRIBAPENA	4
4.1. Metodologia	5
5. AGENTE SUSTATZAILEEI EGINDAKO GALDEKETEN LABURPENA	5
5.1. Programaren alderdi positiboak	5
5.2. Eraikal-en hobe daitezkeen alderdiak	7
5.3. Ekintza-lerro berriak	8
6. ONDORIOAK	10
7. ERANSKINAK	13
ENPRESA ERAGILEEN GALDEKETAK	E1
ELKARGO PROFESIONALEN GALDEKETAK	E5
HONDEAKETA LANAK ETA LURRA MUGITZEKO LANAK EGITEN DITUZTEN ENPRESEN ELKARTEEN GALDEKETAK	E13
SUSTAPEN ETA ERAIKUNTZA-ENPRESEN ELKARTEEN GALDEKETAK	E16
ELEKTRIZITATE, TELEKOMUNIKAZIO, ITURGINTZA, GAS, BEROKUNTZA, GIROTZE ETA ANTZEKOEN INSTALAZIOAK EGITEAZ ETA HORIEN MANTENTZEAZ ARDURATZEN DIREN ENPRESEN ELKARTEEN GALDEKETAK	E20
ITURGINTZA ETA AROTZERIAKO ENPRESEN ELKARTEEN GALDEKETAK	E29
<i>Adc</i> -KALITATEA GARATZEKO ELKARTEAREN GALDEKETA	E32

1. ZER DA ERAIKAL?

Eusko Jaurlaritzako *Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak* 1998an abiarazi zuen **Eraikal** programa, "Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresetan Kalitatea Kudeatzeko Sistemak ezartzeko eta hobetzeko laguntzen lehen programaren" aurkezpena egin zuenean. 2001etik *Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila* arduratu da laguntzen deialdi berriak egiteaz. 2009. urtera iritsi da programa *Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren* eskutik, eta hamar deialdi eta hamaika urteko ibilbidea bete ondoren, sektoreak eta **Eraikal** programak berak izandako bilakaeraren gainean hausnartzeko une egokia dela uste dugu, sektoreak gaur egun dituen beharretara egokitu behar baita programa .

Diru laguntzen bitartez **Eraikal**-ek enpresen kudeaketa hobetzeko proiektuak sustatu nahi ditu eta, kasu batzuetan, enpresaren kanpo-gastuaren % 50 estaltzera iristen dira aipatutako laguntzak:

1. Kalitate, ingurumen eta laneko segurtasunaren sistemak ezartzea eta ziurtatzea.
2. Iraunkortasuna sustatzea. UNE 150301 ekodiseinuaren araua ezartzea eta ziurtatzea.
3. Etengabeko hobekuntza eta enpresa-bikaintasuna lortzeko jardunbideak sustatzea (EFQM, eta abar).
4. Berrikuntza.
 - Teknologia berriak edo jardunbide berriak erabiliko dira, eraikuntza-prozesuaren segurtasuna areagotzeko eta ingurumenarekiko iraunkorra eta herritarren beharretara zuzentzen dela ziurtatzeko; edo eraikuntza-prozesuen estandarizazioa eta sistematizazioa lortzeko aurretiazko ekimenak jarraituko dira, prozesu horien industrializazioa bilatuz.
 - UNE 166002 (I+G+b-ren kudeaketa) arauaren ezarpena eta ziurtapena.
5. Eraikuntzako enpresa txikien eta gremioen egitura, antolamendua eta funtzionamendua hobetzera bideratutako enpresa-proiektuak.

Bestalde, **Eraikal**-ek hainbat laguntza-zerbitzu jarri ditu sektorearen eskura, enpresen arteko kultur aldaketa errazteko. Horretarako, sensibilizazioak duen eraginkortasuna baliatuko da: hedapen-jardunaldiak eta prestakuntza-ikastaroak (1. irudia), Eraikal-Berriak aldizkaria, Eraikal-en web-orria, www.euskadi.net/eraikal, edo Kontsulten postontzia, eraikal@ej-gv.es.



1. irudia. Hedapen-jardunaldia

Enpresek kudeaketa hobetzeko etengabe egin behar duten lana errazteko materialak jarri nahi ditu **Eraikal**-ek sektoreko enpresen eskura eta, xede horrekin, eduki teknikoko hainbat argitalpen garatu eta zabaltzen ditu. **Eraikal**-en web-orrian eskura daitezke dohainik guztiak. Horrez gain, **Eraikal**-en bitartez hainbat argitalpen editatzen eta zabaltzen lagundu da, eta sektorerako tresna interesgarriak eskaintzen lagundu da halaber. Tresna horiek ekimen honen barruan parte hartzen duten eragileek landutako tresnak dira (ikus 2. irudia).



2. irudia. Material teknikoak

3. irudian ikus daitezke **Eraikal**-ek enpresen ziurtagapenen eta aitortzen esparruan erdietsitako lorpenak, 1998an sortu zenetik 2009ko ekainera arte.



3. irudia. Eraikal-en emaitzak: 1998-tik 2009ko ekainera


2. AGIRIAREN XEDEA

Eraikal-ek egindako deialdietan parte hartu duten agente sustatzaileen iritziak erakusten ditu agiri honek. Enpresa-elkarte, elkargo profesional eta enpresa eragileei honako gai hauei buruz galdetu zaie:

- Aurkeztu dituzten proiektuen bilakaera;
- Programaren alderdi azpimarragarriak;
- Programatik hobe daitezkeen alderdiak;
- **Eraikal**-ek etorkizunera begira egin beharreko bidea, programak berak eta elkargokideek dituzten itzaropenei erantzuteko.

3. ERAIKALen PARTE HARTZEN DUTEN AGENTEAK

4. irudian ikus daitezke **Eraikal**-en parte hartzen duten agente guztiak.



4. irudia. Eraikal agenteak

Eskuarki, honakoa bakoitzari dagokion funtzioa:

- *Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila*: Programaren jabea.
- *Agente sustatzaileak*: Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta, bizitegi-eraikuntzako sektoreko enpresetan kudeaketa eta etengabeko hobekuntza lortzeko sistemen ezarpenaz arduratzen diren agenteak dira.
- *Laguntzen onuradun diren enpresak*: Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresak.
- *Aholkularitza-enpresak eta ziurtapen-enpresak*: Enpresa onuradunekin batera lan egiten duten enpresak dira. Lehenengoak proiektuak gauzatzeaz arduratzen dira, **Eraikal**-ek diruz laguntzen dituen arloen barruan, eta bigarrenak arduratzen dira kudeaketa-sistema baten ezarpena eta ziurtapena bilatzen duten proiektuak gauzatzeaz, aipatutako sistemen ziurtapena lortzeko.


4. LANAREN DESKRIBAPENA

Orain aurkezten dizuegun agiriaren ardatza agente sustatzaileak dira. **Eraikal** programaren barruan oinarritzko osagai bat dira agente sustatzaileak: administrazioaren eta diru laguntzaren onuradun diren enpresen arteko harremana errazten dute, sentsibilizazio-lan handia egiten dute **Eraikal** programaren helburuak aditzera emateko eta bitartekari-lanak betetzen dituzte programari berari dagokion kudeaketan, hala nola, proiektuak prestatzen direnean, horien jarraipena egitean, ordainketen kudeaketa egitean, emaitzak ezagutzera ematean, eta abar.

Eraikal Aginduak kontuan hartuta, hiru agente sustatzaile mota bereiz daitezke:

1. Bizitegi-eraikuntzaren sektoreko izaera eragileko enpresak, duten erosketa- eta kontratazio-ahalmenari esker hornitzaile eta kontratisten artean eragileko eta lidergo gaizatzeko gaitasuna dutenak.
2. Bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresa-taldeak edo -elkarteak, ordezkaritza zabala edo eragin handia dutenak.
3. Bizitegi-eraikuntzako sektoreko enpresen kopuru handi batek kudeaketa-sistemak ezarri ahal izateko euskarri egokia eskaintzen duten bestelako agenteak. Horien artean aipa daitezke, kalitatea eta kudeaketa sustatzen duten erakundeak, bizitegi-eraikuntzaren sektorearekin erlazionatutako elkargo profesionalak, ikerketa teknologikoko zentroak, merkataritza-ganberak, eta abar.

5. irudian adierazi dira galdeketa bete duten agente sustatzaile guztiak:



5 irudia. Eraikal-en agente eragileak

- Izaera eragilea duten enpresak: *Fonorte, Sarkis-Lagunketa Taldea eta Construcciones Sukia Eraikuntzak, SA*
- Elkargo profesionalak: *Coaatbi*, Bizkaiko aparailari eta arkitekto teknikoen elkargo ofiziala; *Coaatg*, Gipuzkoako aparejadore eta arkitekto teknikoen elkargo ofiziala; *Coavn*, Euskal Herriko arkitektoen elkargo ofiziala eta *Coib*, Bizkaiko industri ingeniariaren elkargo ofiziala.
- Hondeaketa-enpresen elkarteak: *Aexal*, Arabako hondeatzaileen elkartea; *Ave-Bie*, Bizkaiko induskari elkartea.
- Sustapen- eta eraikuntza-enpresen elkarteak: *Ascobi-Bieba*, Bizkaiko etxegile sustatzaileen bazkuna; *Ascongí*, Gipuzkoako etxegileen elkartea eta *Sea-Uneca*, Arabako eraikuntzako enpresarien batasuna.

- Elektrizitate, telekomunikazio, iturgintza, gas, berokuntza, girotze eta antzekoen instalazioak egiteaz eta horien mantentzeaz arduratzen diren enpresen elkarteak: *Aeieb*, Bizkaiko instalatzaile elektrikoen eta telekomunikazioen enpresa elkartea; *Afogasca*, Arabako iturgintza, gas, berokuntza, mantentze-lan eta antzekoen enpresen elkartea; *Afonvi*, Bizkaiko iturgintza, saneamendu, gas, berokuntza eta antzekoen enpresen elkartea; *Amicyf*, Euskadiko hotz- eta bero-mantentzaileen elkartea eta *Instagi*, Gipuzkoako instalatzaile eta mantentzaileen enpresen elkartea.
- Igeltserotza- eta arotzeria-enpresen elkarteak: *Arotzgi*, Gipuzkoako arotz taldea eta *Eraiki*, Gipuzkoako erai-kuntza- eta igeltserotza-enpresaburuen elkartea.
- Kalitatea sustatzeko erakundeak: *Adc*, enpresa kalitatearen garapenerako elkartea.

Agiri honetan ez dira teknologia-zentroak barne hartu. Izan ere, bestelakoa da teknologia-zentroetan egin duten lana: ez dira kudeaketa-sistemen ezarpena mugatzen, **Eraikal**-en parte hartzen duten gainerako agente sustatzaileak bezala.

4.1. Metodologia

Ondorengo lerroetan zehaztu da orain arte egindako lana:

- Eredu-galdeketa bat diseinatu da agente sustatzaileentzat.
- Ekimena eta galdeketa aurkeztu zaie agente guztiei. Biak bidali eta galdeketa betetzeko epea jakinarazi da.
- Galdeketak jaso eta gainbegiratu ondoren, agente motaren arabera antolatu dira. Agente motei dago-kienez, honako hauek definitzen dira **Eraikal**-en aginduetan: enpresa eragileak, elkargo profesionalak eta elkarteak. Elkarteen barruan bereizketa gehigarri bat egin da, elkarteko kideen jardueraren arabera (hondeaketa, eraikuntza eta eraikinen instalazioen enpresak), Agente motak bereizi eta mota bakoitzean sailkatutako erakunde guztiei informazioaren laburpena bidali zaie; beraiena da edukiak bateratzeko ardura.
- Gainera, eredu-galdeketa bat egin da aholkularitza-enpresetarako. Azken galdeketa hori agiri honetan barne hartu ez bada ere, **Eraikal**-eko 3 aholkularitza-enpresa aktiboek bete dute eta egindako iruzkinak agiri honek islatzen dituen ondorioetan barne hartu dira.
- Agente sustatzaileek galdeketetan egindako iruzkin guztiekin laburpen bat osatu da.
- Laburpen-agiri hori galdeketan parte hartu duten agente guztiei bidali zaie, onartzeko.


5. AGENTE SUSTATZAILEEI EGINDAKO GALDEKETEN LABURPENA

Atal honetan agente sustatzaileek esandakoa laburbiltzen saiatu gara. Ideia kontrajarriak jaso ditugu zenbaitetan, baina galdeketan parte hartu duten agente anitzek emandako iritziak direnez, laburpenean barne hartu ditugu guztiak.

5.1. Programaren alderdi positiboak

Eraikal-en alderdi positiboak buruz galdetzean agentek emandako iritzien laburpena erakusten du 6. irudiak. Programaren alderdi positiboak buruz galdetzean, alderdi orokorrak eta alderdi bereziak ezberdindu dira eta agente sustatzaileek emandako erantzunak eta azken enpresa onuradunek emandakoak identifikatu dira.

Hamar deialdi egin dira dagoeneko, eta proiektu ugari eta sektoreko mota orotako enpresak parte hartu dute. Atzera begira eginez, programaren komunikazio-kanalak eta agente sustatzaileak funtsezkoak izan dira programa enpresen artean ezagutzera emateko. Hain zuzen ere, gaur egun ez da agente sustatzailearena eta aholkularitza-enpresena bakarrik proiektuak garatzeko interesdunak bilatzeko ardura; gaur egun, elkartekideek eskatzen diete laguntza agente sustatzaileei eta **Eraikal** programaren diru laguntzei buruz galdetzen dute.



6. irudia. Eraikal-en alderdi positiboak

Laguntzen izaera sektoriala, bizitegi-sektorea dute ardatz laguntzek. **Eraikal** bezalako “esparru-programa sektorial” batek lanak izugarri errazten ditu, mota orotako enpresatan politika sektorialak ezarri eta hedatzeko orduan; eta, ondorioz, sektoreko kalitatea, berrikuntza, iraunkortasuna eta segurtasuna sustatzen dira nabarmenki.

Eraikal laguntzen garrantzia agerikoa da enpresa ziurtatuen kopuruari erreparatzen bazaio. Adibidez, 2008ko abenduan Espainian ziurtatu ziren arkitektura-estudioen artetik % 60 Euskal Autonomia Erkidegoko estudioak ziren.

Eraikal laguntzak erreferentzia bihurtu dira nazio-mailan. Nafarroan, Valentziako erkidegoan eta Andaluzian **Eraikal**-en ondoren hasi dira ekodiseinua diruz laguntzen, eta Madrilgo erkidegoan 2010erako egitea aurreikusi dute.

Horrelako laguntzek enpresak kontzientziatzeko balio dute, hobekuntza-prozesuak garatzeko ekindako bidean bakarrik ez daudela eta herri-administrazioak bide horren aldeko apustua egin duela erakusten baitute.

Halaber, aipatzekoa da zenbait agente sustatzailek garatzen dituzten proiektuetan, enpresa elkartuak barne hartzeaz gain sektoreko beste enpresa batzuk barne hartzen direla.

Tamaina oso txikia duten enpresen elkarteekin lan egiten duen agente sustatzaile batek kalitate-eragilearen irudia sortu du. Irudi horrek betetzen duen funtzioa, kalitate-sistemak ezartzeko proiektuetan parte hartzen duten enpresa txikiei (nahi dutenei), kalitate-mailako aholkuak ematea da. Arrakasta handia lortu da irudi berri horrekin eta proiektua amaitzean ere, kalitate-eragilearengana jotzen dute enpresek sistemen mantentzea egiteko.

5.1.1. Alderdi positiboak agente sustatzaileen ustez

Eraikal programa kudeatzean, EAEko eraikuntzaren sektoreko kalitatea, iraunkortasuna, berrikuntza eta prebentzioa kudeatzeko sistemen ziurtapenaren errealitatea eta egoera zein den zuzenean ezagutzen dute agente sustatzaileek.

Horrelako ekimenak oso lagungarriak dira enpresa-elkarteak eta elkargo profesionalak enpresa eta elkargokideekin zuzenean erlazionatzeko eta euren kezkek eta beharrak ezagutzeko, **Eraikal**-en programan parte hartu ala ez. Emaitzak ikusita, ekimen berriak diseinatu dira, eta aurretik **Eraikal** programetan parte hartu eta ziurtapenak lortu zituzten enpresa asko eta asko, ondoren egindako **Eraikal** programetan parte hartzera animatu dira, horietan ere ziurtapenak lortuz.

5.1.2. Alderdi positiboak enpresen ustez

Laguntzen onuradun diren enpresek egin beharreko izapidetze-lanak errazak dira, sustatzaileak arduratzen baitira administrazioaren laguntza jaso eta enpresa onuradunen artean banatzeaz, programaren kudeaketaz eta izapide burokratiko guztiak egiteaz. Hortaz, kudeaketa-lanak astunak gerta daitezke agente sustatzaileentzat. Horixe adierazi dute **Eraikal**-en deialdi bakar batean parte hartu duten elkarteek. Oro har, gremioekin erlazionatutako elkarteak dira: “**Eraikal** programen kudeaketa-sistemak administrazio-mailako zailtasunak ditu eta, ondorioz, mikro enpresekin proiektuak garatzeko malgutasuna falta du”.


Enpresei ezarpen-proiektua garatzeko ematen zaien epea ez da urtebetera mugatzen eta Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den urte osoan izandako gastuak estaltzen dira. Horrenbestez, arau baten ezarpena egingo duen enpresa bati ez zaio diru laguntza murriztuko, gastua deialdia argitaratu aurretik egiteagatik edo ziurtapena lortzen atzeratu izanagatik.

Diru laguntzei esker, bizitegi-sektoreko enpresek aholkularitza-enpresen laguntza lor dezakete kudeaketa-sistemen ezarpena egiteko. Diru laguntzarik gabe, sektoreko enpresa txikiek, azpiegitura mugatua dutenek, zailtasun handiak edukiko lituzkete horrelako proiektuak burutzeko. Horrenbestez, diru laguntzak jasoko direla jakitea eragingarria izan daiteke horrelako proiektu bat garatu ala ez erabakitzeko orduan. Era berean, bezeroek, erakunde-mailakoek edo bestelakoek, kontratazioa egiteko kontuan hartzen dute, gero eta gehiago, enpresa batek kudeaketa-sistemarik ote duen.

Kudeaketa-sistema antolatu eta praktikoa bat ezartzean, enpresetan ordura arte ezagutzen ez zen diziplina bat lortzen da, eta, ondorioz, lehiakorrago bihurtzen dira eta enpresa-irudia hobetzen da, sektoreko beste enpresa batzuekin alderatuta.

5.2. Eraikal-en hobe daitezkeen alderdiak

Agente sustatzaile desberdinek hobetzeko aipatu dituzten alderdien laburpena erakusten du 7. irudia. Hobe-kuntza-ideiak hainbat kategoriatan multzokatu dira: diru laguntzen irizpideak aldatzea, enpresentzat zein agente sustatzaileentzat; proposamenak aurkezteko epeak hobetzea; enpresei egiten zaizkien ordainketen kudeaketa hobetzea; eta enpresen parte-hartzea eta helburuen betetze-maila hobetzea.



7. irudia. Eraikal-en hobe daitezkeen alderdiak

5.2.1. Enpresetarako diru laguntzaren kopurua

Enpresei dagokienez, diruz laguntzen den portzentajea areagotu beharko litzateke enpresa ugari osatutako taldeek aurkeztutako proposamenetan; izan ere, bezeroek euren gain hartu beharreko kostua murriztu nahi da.

Kanpoko aholkularitza-enpresa baten laguntzarik gabe ziurtapena lortzen duten enpresek, laguntza eskuratu beharko lukete, ziurtapena lortzeko enpresa barruan izandako gastuetarako. Hau da, enpresak egiten duen ahalegina behar den bezala baloratu behar da, kanpoko aholkulariek egindako lanera mugatu gabe.

Sistemen ezarpena eta ziurtapena lagundu behar dira, bai eta jarraikotasuna saritu ere. Adibidez, ziurtapenak berri behar direnean, berrikuntza-gastuak eta horretarako kontratatzen diren aholkularitza-enpresen lana lagundu behar dira. Funtsezkoa da, zailena ez baita ziurtapena lortzea, ziurtapenari eustea baizik.

Diru laguntzaren kopurua zehazteko, kasuan kasu enpresaren tamaina hartu beharko litzateke kontuan. Mikro enpresei diru laguntza handiagoak eskuratzeko aukera eman behar litzazieke, kostuari aurre egiteko ahalegin handiagoa egin behar dutelako.

5.2.2. Agente sustatzaileentzako diru laguntzaren kopurua

Agente sustatzaileek kobratu behar duten laguntzaren zatia eta euren proiektuetan parte hartzen duten enpresek dagozkien helburuak lortzea bi gauza independente dira. Adibidez, proiektuan parte hartzen duen enpresa batek ziurtapena ez lortzeak ez du esan nahi agente sustatzaileak gaizki egin duenik dagokion jarraipen- eta motibazio-lana eta, beraz, diru laguntza kobratzeko eskubidea eduki beharko luke, bere lana garatu duelako.

5.2.3. Proposamenak prestatzea

Eskaera-epea zabaldu beharko litzateke (30 egun baino gehiago). Agente sustatzaileen ustez, epea laburregia da bete beharreko eginbehar guztiak kontuan hartuta: deialdia zabaldu, deialdian parte hartzeak dituen abantailak enpresei azaldu, aholkularitza-enpresei eskaintza eskatu, proposamen orokorra prestatu, enpresa parte-hartzaileek euren proposamenetan beharrezkoak dituzten inprimaki guztiak jaso, eta abar.

5.2.4. Proiektuak kudeatzea

Diru laguntzaren ordainketa proposamenean adierazitako epeen betetzearekin bat etortzea.

Ziurtapena lortzen duten enpresei ordainketak azkar egin behar zaizkie. Gaur egun hiruhileko txostenen arabera kudeatzen denez diru laguntza, atzerapen handiak gerta daitezke ordainketa egiteko; izan ere, enpresa onuradunak helburua lortu duenean ematen dio administrazioak dirua agente sustatzaileari.

5.2.5. Enpresa parte-hartzaileak

Enpresa parte-hartzaileen kopurua areagotzeko modu bat agente sustatzaileen kopurua areagotzea izan daiteke, enpresen tamaina edozein izanik. Adibidez, orain arte **Eraikal**-en deialdietan parte hartu ez duten ingeniari teknikoek elkargo profesionalak, bide-ingeniariak, geologoak, industria-ingeniariak elkargoak, eta abar barne hartu daitezke.

Aurkeztutako enpresa guztien artetik ziurtapena lortzen dutenen kopurua hobetze aldera, ezin da ahaztu enpresak berak erabaki behar duela **Eraikal** programan enpresa-elkarte baten barruan parte hartu nahi ote duen,; ez du inork "derrigortuta" edo "konbentziturata" egin behar.


Deialdietan jarraitzen diren epeak kontuan hartuta, izan daitezkeen bajak edo gerta daitezkeen hutsuneak enpresa berriekin betetzeko modua erraztu behar da, ahal den neurrian.

5.3. Ekintza-lerro berriak

8. irudian ikus daitezke **Eraikal**-ek gaur egun jarraitzen dituen lerroak eta agente sustatzaileek aipatutakoak:

Erabat desberdinak diren bi ikuspegi bereiz daitezke atal honetan:

- Gaur egungo lerroei eustea. Aukera honen alde egin duten agenteak ez datoz bat, orain arte ziurtapenak lortzeko dinamikari ekin ez dioten enpresek inoiz egingo ez dutela defendatzen duen arrazoiketarekin. Sektore anitza da, egoera eta errealitate arras desberdinek osatua eta, ondorioz, lan handia dago oraindik egiteko kudeaketa-arloan. Zenbait agente sustatzailek urtero parte hartu dute aktiboki programan, eta enpresa parte-hartzaileen kopurua oso altua izan da, baita azken urteetan ere.



8. irudia. Agente sustatzaileek iradokitako Eraikal leerro berriak

- Sistemen ziurtapena lortzeko etapa nahikoa landu eta garatu da. Orain, izaera berritzailea duten proiektuak sustatu beharko lirateke, izan ere, gaur egungo krisialdia kontuan hartuta, garrantzi handia dute hobekuntza, berrikuntza eta aldaketa lortzeko. Proiektu horiek gaur egun garrantzi gehien duten arloetako proiektuak izan daitezke (ingurumena, eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriak, segurtasuna eta osasuna, eta abar) bai eta arlo tradizionalen proiektuak ere (ekoizpen-prozesuak eta eraginkortasun ekonomikoa, produktibitatea, enpresa-irudia, informazioaren teknologien garapena, eta abar). Halaber, laguntzak eman beharko lirateke iraunkortasun-memoriak lantzeko eta eraikuntza-hondakinen kudeaketarako, eta laguntzak eman beharko lirateke enpresaren gizarte-erantzukizunari dagozkion aurretzako diagnostikoak lantzeko eta ezarpena egiteko.

Sistemen ezarpena egin duten erakundeei begira, hobekuntza-ekintza gehikorrek diruz laguntzeko aukera aipatzen da, betiere bakoitzaren ezaugarriak eta beharrak kontuan hartuta.

Lehenengo ikuspegi hori babesten dute enpresa-elkarte eta elkargo profesional gehienek; bigarren ikuspegia defendatzen dute, berriz, dagoeneko proiektu eragileak egin dituzten eraikuntzaren sektoreko enpresek.


Hainbat ideia osagarri:

- Enpresak/estudioak ziurtapena lortzeko duen garrantziaz sentsibilizatzea. Enpresa/estudio askok irizpide ekonomikoengatik bakarrik egiten dituzte ziurtapenak, edo lanak edo lehiaketak lortzeko aukerak areagotzen.
- Eraikuntzaren sektoreari ez zaio behar bezalako arretarik ematen inbertsioa laguntzeko lerroei dagokienez; esate baterako, ezin ditu eskuratu Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Inbertsioa Laguntzeko Laguntzen Programak laguntzak (AFI programa). Horregatik, ondo legoke Eraikal-ek laguntza-lerro bat ematea zentzu horretan, nahiz eta zaila den horrelako zerbait egitea, aurrekontua nabarmenki areagotu beharko litzatekeelako.

6. ONDORIOAK

Agenteek duten ikuspegia oso bestelakoa da, eta horren erakusle dira **Eraikal**-ek egindako deialdietan aurkeztu dituzten proiektuak edo **Eraikal**-en zenbait deialditan ez parte hartzeko hartutako erabakia. Adibidez, zenbaitek uste dute dagoeneko ez dela geratzen kalitatea kudeatzeko sistemen ezarpena egin ez duen enpresarik baina, beste agente sustatzaile batzuk, ordea, lerro horren aldeko apustua egiten jarraitzen dute. Hasiera batean, pentsa daiteke eraikuntza-enpresek lehen aukeraren alde egingo dutela, kudeaketa-gaietan aurreratuago baitaude, eta gremioek bigarren aukera egingo dutela, lan handia egiteko baitute kudeaketari lotuta. Baina ez da horrela gertatzen: enpresak garatzen duen eraikuntzaren sektoreko jarduerak baino eragin handiagoa du emaitzetan enpresa kokatzen den probintziak. Hau da, **Eraikal**-en emaitzetan badirudi eragin handiagoa duela probintzia bakoitzeko agente sustatzaileen gaitasun eragileak, enpresari dagokion eraikuntza-azpisektoreak baino.

Lortutako ondorioei helduta, agente sustatzaileek **Eraikal** programaren barruan betetzen duten funtzio garrantzitsua azpimarratu behar da (ikus 9. irudia):



9 irudia. Agente sustatzaileen funtzioa

- **Eraikal** programa administrazio, enpresa-elkarte, elkargo profesional, enpresa eragile eta bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresen topagunea da.
- Agente sustatzaileek zubi-lana egiten dute enpresen eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren artean. Administrazioaren eta diru laguntzaren onuradun diren enpresen arteko harremanak errazten dituzte.
- Agente sustatzaileek sentsibilizazio-lan handia egiten dute enpresetan, **Eraikal** programa ezagutzera emateko;
- Agente sustatzaileak kudeaketa-lanak egiteko bitartekariak dira. Besteak beste, proiektuen jarraipena, ordainketen kudeaketa, eta abar bezalakoak egiten dituzte.

Bestalde, aipatzekoa da agente sustatzaileek proiektuak aurkezteko moduak erakutsi duen bilakaera. **Eraikal**-en lehenengo deialdietan aurkezten ziren proiektuak, prestakuntza-ekintza proiektuak ziren guztiak; enpresa-taldeak sortzen ziren berariazko kudeaketa-sistema baten ezarpena egiteko. Beranduago, enpresak bakarka hasi ziren euren lanak aurkezten, arrazoi desberdinak zirela medio: ziurtapena lortzeko kostu baxuagoak, malgutasun handiagoa; izan ere, kasu honetan aholkulariak enpresarekin adostutako egutegi bat jarraitzen du enpresa bisitatzeko eta, gainera, enpresak lortu nahi dituen ziurtapenak hauta ditzake edo aurretik dituen ziurtapenak bateratzea erabaki dezake. Bestalde, enpresa edo estudio oso txikietan talde-lanaren formatuari eutsi zaio. Abantaila nagusi gisa aipa daitezke, kostuak murrizten direla, arazo berberak dituzten beste enpresa batekin lankidetzan jarduteko aukera dagoela eta agente sustatzailearen inplikazioa areagotzen dela.

Oraindik ere indarrean dago **Eraikal** programa abiarazi zenean Industria Sailaren beste ekimen batzuetatik egokitu-tako "agente sustatzailearen" eredua. Gauzak horrela, agente sustatzaile batek gidatutako arloko proiektuen arabera egiten da diru laguntzen kudeaketa, eta ziurtapena lortzen duen enpresak ez du zuzenean kobratzen diru laguntza. Agente sustatzaile batek "gidatutako" ekimenetan arrakasta-tasa altuagoak lortzen dira, deialdi bakoitzarekin batera hiru urteko hasierako plan bat hasten delako, agente sustatzaileak hiruhileko jarraipena egiten duelako edo antzeko proiektuak garatzen ari diren beste enpresa batzuekin harremanetan dagoelako eta proiektua ixtean kobratzen delako diru laguntza.

Eraikal-en barruan agente sustatzaile mota desberdinak bereizten badira ere, elkarrekin eta elkargo profesionalek egin dute parte-hartzerik altuena. Enpresa eragileen parte-hartzea, ordea, nahiko urria izan da. Gogoan hartu, **Eraikal**-en aginduetan ematen den enpresa eragileen definizioa: "bizitegi-sektoreko enpresak dira eta duten erosketa- eta kontratazio-ahalmenagatik hornitzaile eta kontratisten artean eragiteko eta lidergo gaiztasuna dute". Enpresa eragile batzuk taldeko enpresen "gidari" izan dira eta beste batzuk hornitzaile zuzenak, baina ia guztiak bat datoz esatean, egokiagoa litzatekeela elkarrekin eta elkargo profesionalek betetzea lan hori. Ildo horretan, parte hartzen jarraitzeko motibazio bereziren bat behar dutela adierazi dute.

Onuradun suerta daitezkeen enpresetan sentsibilizazio-lana sakontzeko beharra azpimarratu dute hainbat agentek hobetzeko alderdi gisa. Agente sustatzaileak edo **Eraikal** bera arduratu beharko litzateke lan hori egiteaz. Sentsibilizazio-lana ondo egingo balitz, enpresa parte-hartzaileek ondo hautatuko litzukete parte hartzeko interesgarriak diren ekimenak eta euren proiektuen gauzatze-maila areagotzea lortuko lukete.

Eraikal programaren barruan diruz lagun daitezkeen lerroei helduta, honako ondorio hauek azpimarra daitezke:

- Logikoa den moduan, edozein enpresa-esparrutako edozein hobekuntza-ekintza diruz laguntzea gustatuko litzaike agente sustatzaileei;
- Gaur egun indarrean dauden iraunkortasunaren eta industrializazioaren lerroak ez dira ia ezagutzen eta enpresa eragileek, enpresa-elkarrekin eta elkargo profesionalek proiektu gutxi aurkezten dituzte aipatutako bi lerro horiekin lotuta. Hala ere, badaude lerro horien aldeko apustua egiten duten sustatzaileak, nahiz eta ez den proposamenik aurkeztu.


Bestalde, **Eraikal**-en barruan diruz lagun daitezkeen lerroen inguruan hausnartzea komeni da, bizitegi-sektoreko enpresetarako berariazkoak ez izanik ere, sektorean aplikatu daitezkeen diru laguntza berriak sortu direlako. Adibide batzuk:

- Osalan-ek diruz laguntzen du OHSAS 18001 ziurtapenaren ezarpena edo berritzea (laneko arriskuak kudeatzeko enpresa-sistemen ezarpena). Enpresek jasoko duten diru laguntzak ez du inoiz gaindituko diruz lagunduko den aurrekontuaren % 75 (kanpoko gastuak eta barrukoak barne hartuta); eta gehienez ere 12.000 euroko diru laguntza emango da ezarpena egiteko eta 4.000 eurokoa berritzeko. Hau da, **Eraikal**-en laguntzari esker, enpresa batek ziurtapenak eragiten dituen kanpo-gastuen % 100 estal dezake. Aipatzekoa da, halaber, laguntza hori eskatu duten enpresa asko eta asko bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresak direla. **Eraikal** hobetzeko asmoz hainbat agente sustatzailek egindako bi eskaera barne hartzen ditu Osalan-en laguntzak: ziurtapena ezartzeko eta berritzeko barruko gastuen portzentaje bat estaltzen du.
- Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Sailak diru laguntzak ematen ditu, UNE-EN ISO 14001 arauaren arabera ingurumena kudeatzeko sistemen ezarpena egiteko.
- Euskadi+Innova ekimena: berrikuntza-agendaren bitartez definitzen dira berrikuntza-proiektuak. Proiektu horiek beranduago gara daitezke, programa desberdinetan bereizita: Aldatu, antolamenduko eta merkatuko berrikuntzak badira; Gaitek, produktuan egindako berrikuntzak badira; eta Innotek, prozesuan egindakoak badira.

Eraikal programaren inguruan hausnartzeko orduan, ezin dira kanpoan utzi sektoreko enpresen aniztasunarekin erlazionatutako honako gai hauek:

- K-21 kudeaketa-sistema, kalitate-irizpideak oinarrian hartuta mikro enpresak kudeaketara hurbiltzeko lehen urratsa da. Denbora-tarte labur batean ikusten dira emaitzak eta barne-kostua nahiko baxua da.
- Bizitegi-sektoreko enpresen kudeaketa-maila anitza: gremio txikiak K-21 sistemarako lehen urratsak ematen hasi diren bitartean, enpresak askok jada bat, bi, hiru eta lau kudeaketa-arauren araberako ziurtapenak egin dituzte; beste batzuk EFQM kudeaketa-ereduaren garapenari heldu diote;
- **Eraikal**-ek esparru orokor bat definitzen du, baina enpresa bakoitzak behar eta ezaugarri propioak ditu eta proiektu propioak ditu horiek kudeatzeko; hala ere, baliteke, proiektu horiek gaur egun **Eraikal**-ek diruz laguntzen dituen jardueretatik kanpo geratzea;
- Eraikuntzaren sektoreko enpresen artean ohikoa da kudeaketa-sistema baten ziurtapena lortu ondoren, kudeaketa-sistema gehiagoren ziurtapena bilatzea eta guztiak bateratu nahi izatea. Baina zaila da kudeaketa-ren hobekuntzaren ziurtapenak lortzea: adibidez, K-21etik ISO 9001era 11 enpresa bakarrik igaro dira eta *Visesa* eta *Instagi* bakarrik iritsi dira Zilarrezko Q-ra;
- Enpresen tamaina eta gastu-ahalmena. Enpresa txikien kasuan, kanpoko gastuak (12.000 euro inguru) gastu oso handia dira. Halaber, ziurtapenak urtero berritzeko gastuak oso gastu handia suposatzen die.
- Gaur egun ez da pizgarririk ematen ziurtapenak lortzeko eraginkortasunagatik. Horrela, laguntza kanpo-gastuen % 50era mugatuta dago (6.000 euro gehienez). Baina, hainbat enpresak batera aurkezten badute prestakuntza-ekintza formatuko proiektu bat, eta, adibidez, gastuak murrizten badira, ez al litzateke egokia izango eraginkortasun hori saritzea?

10. irudian laburbilduta ikus daiteke ondorioen atal honetan adierazitako guztia: **Eraikal**-en lerro berriek sektoreko enpresen aniztasuna eta diru laguntzen beste programa batzuekin izaten diren elkarreaginak hartu beharko litzukete gogoan.



10 irudia. Eraikal-en lerro berrien definizioa

Hamar urte ibilbide luzea dira edozein ekimenetarako. **Eraikal**-ek ederki bete du bere bidea, baina heldutasunera iristen den edozein ekimen bezala, programa berrikustea komeni da. Hamar deialdi egin ondoren, gaur egun **Eraikal** da eraikuntzaren sektoreko lehiakortasuna eta iraunkortasuna epe luzera hobetzeko laguntza publikoen erreferente argiena. Garatzen dituen jardueren orientazioa berrikustea komeni da, hartara, xede duen merkatu objektiboak egun dituen beharretara hobeto egokitzeko; izan ere, behar horiek eta programa sortu zenekoak desberdinak dira seguru asko.

Azkenik, aholkularitza-enpresa batek egindako iruzkin interesgarri bat erantsi nahiko genuke: “Programa oso interesgarria dela deritzogu, baina hobekuntza moduan, berau zuzentzen duen administrazio-arloak programan parte hartzen duten alde guztienganako harreman zuzenak sustatu beharko litzukeela uste dugu: enpresak eta elkarte sustatzaileak, elkargo profesionalak, aholkulariak, teknologia-zentroak eta prestakuntza-zentroak; edukiak, metodologiak eta informazio-fluxuak optimizatu behar direlako, programaren emaitzak maximizatzeke”.

7. ERANSKINAK

- Izaera eragileko enpresen galdeketak
- Elkargo profesionalen galdeketak
- Hondeaketa-lanak eta lurra mugitzeko lanak egiten dituzten enpresen elkarteen galdeketak
- Sustapen eta eraikuntza-enpresen elkarteen galdeketak
- Elektrizitate, telekomunikazio, iturgintza, gas, berokuntza, girotze eta antzekoen instalazioak egiteaz eta horien mantentzeaz arduratzen diren enpresen elkarteen galdeketak
- Igeltserotza eta arotzeria-enpresen elkarteen galdeketak
- Kalitatea sustatzeko erakunde baten galdeketa

ENPRESA ERAGILEEN GALDEKETAK




Iratxe García Puyuelo, Afer Taldeko kalitate, ingurumen eta segurtasunerako zuzendaria. Fonorte ecsa hormigoizko zimendu eta egituretan espezializatutako eraikuntza-enpresa bat da. Baliabide tekniko, finantzario eta giza baliabide ugari ditu eta xede dituen merkatuetan lider izatera iritsi da askotan.

Nazio-mailan indar handien duen enpresa-talde baten barruan dago, Afer Taldearen barruan, hain zuzen ere, eta, horri esker, bezero berriekin erlazio beteak edukitzeko aukera du, bai eta merkatu berriak ezagutzeko ere; erronkak gaindituz, herrialde osoan hormigoizko egituretan espezializatutako erreferentziatzko eraikuntza-enpresa izatea du helburutzat.



Luis Alba eta Erika Diaz, Sarkis Lagunketa Taldeko zuzendari orokorra eta kalitate, segurtasun eta ingurumeneko zuzendaria, hurrenez hurren. 1979ko otsailean sortu zen Gasteiz-en Lagunketa, SA enpresa. Herri-administrazioekin itundutako eraikuntza du espezializotzat hasieratik, bereziki babes ofizialeko etxebizitzaren esparrua, eta eraikuntza berezien eraikuntza, hala nola kiroldegi, bulego-eraikin eta museoaren eraikuntza. Sarkis matrizearen espezializazioa herri-administrazioekin sustapen itunduak garatzea da, higiezinaren sektorean, hiri-plangintzan eta, bereziki, babes ofizialeko etxebizitzaren esparruan eta administrazioekin sustatutako aparkalekuen esparruan. 1995. urtean Sarkis eta Lagunketa erakundeak elkartu ondoren, Sarkis Lagunketa Talde indartsua osatu zen. Bi erakundeek EAEko eraikuntzaren sektorean zuten agerpena sendotu nahi zen, jarduera pribatuan zein publikoan.



Javier Alegre. Construcciones Sukia Eraikuntzak, S.A. 1974an sortu zen nazio-mailako eraikuntza eta sustapenaren esparruko enpresa-talde baten buru eta kide da. Sortu zenetik 34 urte baino gehiago igaro dira eta sozietateak eraikuntzarekin lotutako esparru ugari garatu du bere jardueran: obra zibila, industria-pabilioiak, higiezinaren sustapenak, eta abar.

Gure enpresaren estrategia bezeroari kalitatezko produktu bat ematean datza, betiere xehetasunak bereziki zaintzen direla. Izan ere, lortzen ditugun emaitzak alde aurretik hartu ditugun konpromisoekin bat etortzea dugu xedetzat, eta, horretarako, kostuak egokitu eta ezarritako epeak betetzen ditugu.

Modu berean, Construcciones Sukia, S.A. sozietateak ikerketa- eta garapen-lerro berrien aldeko apustua egin du, bezeroari, barrukoari zein kanpokoari, balio erantsi handiagoa eskaintzeko. Azpimarratzekoa da gure proiektuetan energia-neurri eraginkorrek garatzen ditugula, gure lan egiteko modua optimizatzen barne-hobekuntzak ezarri ditugula eta etengabeko hobekuntzaren aldeko kultura sustatzen dugula gure erakundearen.

Zer proiektu aurkeztu duzu Eraikal-en deialdietan?

Fonorte: Fonorte enpresa eragile gisa aurkeztu zen Eraikal Sei (2003-2005) programan, honako proiektu honekin: "Fonorte enpresaren hornitzaile eta azpikontratatisten kudeaketa-sistemen ezarpena"

Lagunketa: Lagunketa-ri esker, honako enpresa hauek lortu dituzte kalitatea kudeatzeko sistemen ziurtapenak, Eraikal-ek egindako deialdietan:

- Eraikal Bat (1998-2000), sei enpresari lagundu zaie.
- Eraikal Hiru (2000-2002), lau enpresari lagundu zaie.
- Eraikal Bost (2002-2004) bi enpresari lagundu zaie.
- Eraikal Sei (2003-2005) hiru enpresari lagundu zaie.

Kasu guztietan, Taldeko (Sarkis) enpresaren kasuan izan ezik, lagundutako enpresak Lagunketa-ko azpikontratatita homologatuak ziren.

Sukia: Sukia-k hainbat proiektutan parte hartu du, *Asongi-Adegik* aurkeztutako proposamenen barruan beti:

- UNE-EN ISO 9001:2008 ziurtapena **Eraikal Bat (1998-2000)** deialdian; UNE-EN ISO 14001:2004 **Eraikal Hiru (2000-2002)** deialdian; eta OHSAS 18001:2007 lortzeko prozesua **Eraikal Zortzi (2006-2008)** deialdian.
- Proiektu eragileak: **Eraikal Bi (1999-2001)** deialdian, UNE-EN ISO 9001:2000 ezarpena egiten eta ziurtapena lortzen lagundu genien sei enpresa azpikontratistari. **Eraikal Lau (2002-2003)** deialdian, beste sei enpresarekin lanean hasi baginen ere, bik bakarrik lortu zuten UNE-EN ISO 9001:2000 ziurtapena.
- **Eraikal Bost (2002-2004)** deialdian eraikuntza-enpresetarako proiektu eragile batean parte hartu zen, EFQM eredia ezartzeko. Proiektu horretan Gipuzkoako 8 eraikuntza-enpresak parte hartu zuten.
- **Eraikal Sei (2003-2005)** deialdian aginte-koadro integraleko proiektu batean parte hartu zen. Proiektuarekin adierazle-bateria bat identifikatu nahi zen, informazio guztia azkar eta arin erabilgarri edukitzeko eta, horretan oinarrituta, une bakoitzean erabaki estrategiko gokiak hartzeko.

Zer arrazoi eduki duzu Eraikal-en deialdietan parte hartu ala ez erabakitzeko?

Fonorte: *Afer Taldeko* lau enpresari lagundu nahi genien etengabeko hobekuntza lortzen; horretarako, kudeaketa-sistema baten ezarpena egin behar zen (ISO 9001, ISO 14001 eta OSHAS 18001 arauen arabera). Era berean, dokumentazio orokorra eta jardueren antolamendua osotasun batean integratu nahi genuen, guztiarekin, parte hartzen duten enpresa hornitzaileen eta azpikontratisten arteko komunikazioa sustatzeko, betiere prozesuen kudeaketa hobetzerantz bidean.

Lagunketa: Proiektuetan parte hartzeko arrazoi nagusia, *Lagunketa*-k eta lagundutako enpresek programari ateratzen dioten etekin handia da. *Lagunketa*-ren kasuan, arrakasta lortu zen kalitatea kudeatzeko sistemen ezarpenarekin lotutako proiektuetan, eta hornitzaileen egoera hobetzea lortu zen, kualitatiboki zein kuantitatiboki, administrazioaren diru laguntzak baliatuz kalitatea ziurtatzeko sistemen ezarpenaren ikuspegitik. Lagundutako enpresei dagokionez, kalitate-sistema baten ezarpena egitea lortu nahi zen, bezero nagusi baten esperientzia baliatuz eta, batez ere, bigarren proiektu eragilean egiaztatutako prozesuak jarraituz eta administrazioaren diru laguntza erabiliz.

Sukia: Helburu nagusia antolamendu-mailako hobekuntzak egitea izan da, hobekuntza horiek oinarrian hartuta gure kudeaketa-sistema hobetzeko, gure langileak etengabeko hobekuntzak duen garrantziaz jabetzeko eta sektorearen barruan dugun lehiakortasuna hobetzeko.

Zer funtzio eragile betetzen duzue Eraikal proiektuen barruan zuen enpresen ikuspegitik?

Fonorte: *Fonorte*-k enpresa eragile gisa bete duen lana, kudeaketa-sistemak koordinatzeko proiektua garatzen laguntzea izan da; ildo horretan, proiektuan barne hartutako enpresei babesa, aholkularitza eta laguntza tekniko egokia eman zaie. Bestalde, proiektuko emaitzak ezagutzera emateko komunikazio-kanala izan da eta taldeko enpresa, hornitzaile eta gure proiektuetako bezeroen sentsibilizazioa sustatzeko lan egin du.

Lagunketa: *Lagunketa*-k **Eraikal**-en proiektu desberdinetan egindako lanari dagokionez, **Eraikal** proiektu bakoitzaren eta gidatutako enpresa bakoitzaren hautapena, plangintza, aholkularitza, zuzendaritza eta jarraipena egin zuen, aholkulari espezializatuekin eta administrazio teknikoekin lankidetzan.

Sukia: Gure sektorearen ezaugarrietako bat azpikontratazio-maila altua dela kontuan hartuta, gure azpikontratista garrantzitsuenak enpresan ezartzen ari ginen kalitate-baldintzekin lan egiten hasteko apustua egin genuen, hartara, gure balio-kate osoa bateratzeko.

Nola deskribatuko zenuke Eraikal programetan izandako esperientzia?

Fonorte: Hasiera batean ahalegin handia egin behar izan genuen, kostu ekonomikoa altua izan zen eta ohiturak aldatu eta egitura-mailako aldaketak egin behar izan genituen, batez ere hutsetik abiatzen ginelako, eta ordura arte lanean genituen ohiturak txarrak zirela kontuan hartuta. Bestalde, zailtasun handiak izan genituen hiru zatitan bereizitako sistema integratu bat ezartzeko, jakitun baikinen zaila dela sistema bakar baten ezarpena egitea eta are zailagoa hiru zatitan egitea.

Halaber, ahalegin handia egin genuen enpresaren barruko prestakuntza, antolamendu eta kulturaren aldaketa sustatzeko. Gaur egun, haatik, modu erraz eta azkarrean egiten da ezarpena hornitzaile berriei.

Lagunketa: Parte hartutako programetan esperientzia positiboa eduki genuen. Alde batetik, lehen aipatu diren emaitzengatik; eta, bestetik, hainbat hedapen-ekintzatan parte hartzeko aukera izan genuelako, **Eraikal**-en beste deialdi batzuetako enpresa gidatuekin batera. Horrela, ikuspegi desberdinak ezagutu genituen, eta sektoreko enpresa desberdinekin batera egindako lanean oinarritutako ikaskuntza lortu genuen.

Sukia: Esperientzia positiboa eduki genuen kudeaketa-sistemak gure azpikontratatisten artean ezartzeko orduan, gure bezeroengana hurbiltzeko ikuspegi komertzial hutsa gainditu eta beste berri batetik hurbildu ginelako. Aldaketa-prozesu orotan bezala, oztopoak izan genituen bidean, baina azken emaitza bikaina izan zela azpimarratu behar da.

Zer emaitza lortu duzu agente eragile gisa? Zer emaitza lortu dituzte zure hornitzaileek?

Fonorte:

- Taldeko enpresen jarduera desberdinak antolatzeke balio digun tresna bat erabiltzeko aukera eduki dugu.
- Taldeko enpresen barruan eta enpresa lankideen barruan komunikazio-kanalak sortu ditugu, gure jardueren prozesuen funtzionamendua hobetzeko.
- Sistema eraginkorrago bat lortu dugu erakundeak eta enpresa hornitzaileek definitutako helburuak eta xedeak lortzeko. Arlo bakoitzeko arazoak konpondu genituen, modu isolatuan, beste sistemetan zailtasunik eragin gabe.
- Erakundearen barruan berrikuntzari ekiteko pizgarri moduan ikusten da. Erakundearen funtzionamendu orokorra optimizatzen da. Sistema bakar bat baliatzen denez, kudeaketa errazten da, kostuak murrizten dira, eta abar. Horrenbestez, enpresak lehiakortasuna sustatzeko lanari ekin dio, merkatuan duen egoera hobetzeko gogoz.
- Gure jarduerak ingurumenean eragiten duen inpaktuaren aurrean kontzientziazioa eta sentsibilizazioa areagotzea lortu dugu.

Lagunketa: Kasu guztietan begi bistakoak dira emaitzak. Horrela, aurkeztu ditugun proiektuak kontuan hartuta, ziurtapen asko lortu direla esan behar da (15 ziurtapen, aurkeztutako 19 enpresaren artean), eta administrazioak programa **Eraikal**-etik kanpo garatzeko emandako laguntzari esker, kostuak murriztea lortu zen.

Sukia: Gure helburu nagusia gure gremioak kalitatezko tresnak erabiltzeak duen garrantziaz kontzientziazioa zen, horrela balio erantsia lortzen dela uste baitugu. Horrekin batera, Sukia enpresak sektorean duen irudia indartzea lortu dela uste dugu.

Eraikal bezalako ekimenak eraginkorrak al dira Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresetan kalitatea, iraunkortasuna, segurtasuna eta berrikuntza sustatzeko?

Fonorte: **Eraikal** gisako ekimenak benetan lagungarriak dira enpresek kudeaketa-sistemen ezarpenaren aldeko apustu egiteko eta erakundeak euren proiektuak aurkeztera animatzen dira bide batez.

Lagunketa: Bai, batez ere hasiera batean, hobekuntza-ekimen guztiak hedatu eta ezarri behar direnean. Zalantzak sortzen dira eta ezjakintasuna da nagusi; ondorioz, "itxarotearen" alde egiten da, ez da "arriskurik hartzen" eta, jakina, prozesu osoa atzeratu egiten da.

Sukia: Gure esperientziak baietz dio. Aldaketa guztiak errazago lor daitezke administrazioak laguntzen badu. Gainera, ezin da ahaztu diru laguntzek hobekuntza-prozesuek sortutako kostuaren zati handi bat estaltzen dutela.

Nola baloratzen dituzue Eraikal programaren hamar edizioak?

Fonorte: **Eraikal** programek ondo funtzionatzen dutela dirudi: 10 urte dira martxan jarri zirenetik eta urtero enpresa berriak sartzen dira programetan euren proiektuekin. Bestalde, garai berrietara egokitzen jakin du, programen barruan I+G+b kudeaketa-sistemak barne hartuz eta eraikuntza-prozesuen industrializazioaren bitartez estandarizazioa eta sistematizazioa lortzera zuzendutako ekimenak sustatuz, European egiten den moduan.

Lagunketa: Balorazio positiboa egiten badugu ere, gure kasuan, kontuan hartuta **Eraikal** proiektuen diseinua eta bilakaera eta kontuan hartuta ahalegin guztiak gure taldeko proiektuetan gure sistemen etengabeko hobekuntzara bideratzea erabaki genuela, gero eta motibazio gutxiago eduki dugu **Eraikal**-en parte hartzeko.

Sukia: Gure ustez, sektoreko enpresek aurrera egin dutela esan daiteke; ondorioz, sektoreko irudia hobetu da orokorrean eta, zenbait kasutan, enpresen arteko komunikazioa ere bai. Joera horri eusteko erronka dugu gaur egun eta, xede horrekin, sektoreak eta, oro har, gizarteak dituen behar berriak kontuan hartu eta **Eraikal** esparrua eguneratu beharko litzatekeela uste dugu.

Zer alderdi positibo azpimarratuko zenuke Eraikal-etik?

Fonorte: Hamar deialdietan erakutsitako ibilbidea berme nahikoa da edozein enpresa parte hartzera animatzeko. Bestalde, *Fonorte*-ren kasuan, **Eraikal Sei (2003-2005)** deialdian bakarrik parte hartu bagenuen ere, ondorengo urteetan gurekin harremanetan jarri dira beti, antolatutako programen berri eman digute eta gure enpresak proiektu berrietan parte hartzeko interesa agertu dute.

Lagunketa: Sektoreko enpresek proiektu multzokatuetan parte hartzeko aukera dute eta euren esperientziak helarazi ditzakete, bertan parte hartzen duten agenteen bitartez: administrazioa, enpresa eragileak, laguntzen onuradun diren eraikuntzaren sektoreko enpresak, eta abar.

Sukia: Sektorean mota honetako laguntzarik ezean ezin eginezkoak ziren hobekuntzak lortu direla azpimarratuko genuke.

Zer alderdi hobe daiteke Eraikal-en?

Fonorte: Hasiera batean, kudeaketa-sistemak ezartzeko enpresetarako laguntzei eutsi beharko litzaike, baina laguntza handiagoa eman beharko litzaike izaera berritzaile handiko proiektuei, izan ere, krisi garaian -eta gaur egun krisian gaude-, hobetzeko, berritzeko eta aldaketa lortzeko aukeraren alde egin behar da.

Lagunketa: Motibazio berriak behar direla uste dugu, esperientzia duten enpresa eragileak, gure Taldekoak bezalakoak, proiektuarekin lotuta jarraitzeko.

Sukia: Bi azken **Eraikal**-en ondoren, **Eraikal Bederatzi (2007-2009)** eta **Hamar (2008-2010)**, diruz lagun daitezkeen jardueren buruz hausnartzeko unea iritsi dela uste dugu Sukia-n. Adibidez, sistemak ziurtatzeko etapa nahikoa gaudituta dagoela uste dugu, hortaz, **Eraikal**-ek ekimen berriak bilatu behar ditu, enpresetan kudeaketaren bikaintasuna lortzeko erronka eta helburu berriei buruz gogoeta egin dezaten.

Kontuan hartu behar dira, halaber, enpresa bakoitzak dituen ezaugarriak eta beharrak. **Eraikal**-ek esparru orokorra zehazten du, baina enpresa bakoitzak bere beharrak ditu. Zentzu horretan, hurbilago egon beharko lirateke bi aldeak, bai proiektua esleitzeko orduan, bai proiektuaren ezarpenaren jarraipena egiteko orduan.

Etorkizunera begira zer ekintza-lerro barne hartu beharko litzuzke Eraikal-ek?

Fonorte: Aurreko galderan emandako erantzunak balio du honetan ere.

Lagunketa: Sektoreko enpresetan kalitate-sistemen ezarpenari eutsi eta ezarpena hobetu behar da.

Jada sistemen ezarpena eginga duten erakundeetan, bakoitzak dituen ezaugarriak kontuan hartu eta mailakako hobekuntza-ekintzak zehaztu behar dira.

Berrikuntzaren kudeaketa sustatu behar da sektorera aplikatuta, hala gaur egun garrantzi handien duten arloetan (ingurumena, eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriak, segurtasuna eta osasuna, eta abar) nola arlo tradizionalan (ekoizpen-prozesuak eta eraginkortasun ekonomikoa eta produktibitatea).

Sukia: Zaila da jarduera-lerroak zehaztea, baina, gure ustez, ezinbestekoa da parte hartu nahi duten enpresei aurrera egiteko aukera ematea eta garapena lortzeko benetako konpromisoa hartzea.

Zentzu horretan, *Sukia*-ren lerro estrategikoen berrikuntza dute ardatz gero eta gehiago (produktuetan zein prozesuetan), bai eta eraikuntza iraunkorra eta informazioaren teknologien barne-garapena ere.

ELKARGO PROFESIOALEN GALDEKETAK



Idoia Azaldegui Alba, Atz-arkitektura teknikoaren garapenerako zentroko zuzendaria. Bizkaiko aparailari eta arkitekto teknikoen elkargo ofiziala (Coatbi aurrerantzean), 1940an sortu zen, aurreko hamarkadan osatutako Aparejadoreen Euskal Federaziotik, eta mila elkargokide baino gehiago ditu.

Proiektu eta esku-hartze profesionalak ontzat emateko zerbitzuaz gain, prestakuntza-jarduera eta tresna profesional ugari garatzen dira, Atz garapen profesionaleko zentroaren bitartez; Halaber, lan-poltsa bat eta txanden zerrenda bat osatu ditu, peritazio judizialetan erabiltzeko.



Ander Garmendia Sarriegi, Coaalg-Gipuzkoako aparejadore eta arkitekto teknikoen elkargo ofizialeko idazkari teknikoa. Coaalg elkargoaren sorrerako helburuen artean, lanbidearen antolamendua eta horren adierazpena aipa daitezke. Era berean, erakundeak lanbidearen interesen defentsa egiten du, gizarteak oro har dituen interesak eta beharrak kontuan hartuta. Gaur egun zortziehun elkargokide baino gehiago ditu Gipuzkoako lurralde historikoan.

Herri-administrazioekin etengabeko lankidetzaz egiten du: xedapen orokorrak lantzeko prozeduran txostenak edo alegazioak aurkezten ditu, epaimahaietan parte hartzen du edo aholkulari espezialistaren lanak betetzen ditu enplegu publikoko eskaintzaren berariazko probetan, edo eraikuntzaren esparruan, eta lan jakin batzuk garatzeko hitzarmenak sinatzen ditu, obraren gauzatzeko-zuzendaritza, kalitate-kontrola eta laneko segurtasuna eta osasuna bezalako esparruetan. Elkargoko kideen eta kudeatzen dituen enpresen ezagupenak sustatu eta hobetzeko programetan aktiboki parte hartzen du enpresa eragile gisa.

Jardueraren esparru guztiak barne hartzeko, 1990ean kalitatea kontrolatzeko laborategia, *Gikesa*, sortu zen –gaur egun Gipuzkoako eraikuntzaren sektoreko liderra da–, eta sei urte beranduago sortu zen *Eraiker*; irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da azken hori, I+G+b programekin lotuta garatzen du bere jardueraz eta *Innobasque*-Berrikuntzaren Euskal Agentziako bazkidea da.

Iñigo Araiko Rodríguez, Arkitektoa, Coavn-Euskal Herriko arkitektoen elkargo ofizialeko Eraikal programen koordinatzailea. Zuzenbide publikoko korporazio bat da Coavn, eta bere xede nagusia da gizartearen interes orokorrari erantzutea; horretarako, arkitektoei dagozkien funtzioak hobeto garatzeko baldintzak sustatzen ditu eta korporazioko kide diren elkargokideek dagozkien jardun profesionala behar den bezala garatzen dutela zaintzen du. Arkitektura gizarte-funtzio baten antzera ulertzen da.

Herri-administrazioekin batera lan egiten du arkitektoaren jardueraz –arkitektura orokorrean eta, eraikuntza eta hirigintza bereziki– eragiten duen esparru arauemailea zehaztu edo aldatzeko.

Halaber, kultura, gizartea eta ingurumena bezalako alderdiekin lotutako balioak sustatzen eta defendatzen dituzten izaera kultural, zibiko eta abarreko erakundeekin batera lan egiten du.

Lan profesionalen oniritzia emateaz arduratzen da eta, horrela, herritarrei ziurtatu egiten zaie lanaren egileen identitatea eta gaikuntza egokiak direla, lanen dokumentazioa zuzena dela forma aldetik eta indarrean dagoen legeriarekin bat datorrela, betiere horrela egin behar bada.

Arkitektoei hainbat zerbitzu eskaintzen zaizkie: aholkularitza teknikotik hasita, hirigintza-informazioko bulego batera, edo zerga-aholkularitzako liburutegi batera, eta abar.



Beatriz de Miguel Cisneros, Coiib-Bizkaiko industria ingeniarien elkargo ofizialeko ikus-onespenen ataleko arduraduna.

Honako oinarritzko xede hauek ditu:

- Lanbidearen antolamendua. Etika eta duintasun profesionala zainduko dira, bai eta gizartearen funtsezko eskubideekiko errespetua ere.
- Interes profesional orokorrak eragiten dituzten gai guztietan lanbidea ordezkatuta egotea.

- Elkargokideen interes profesionalak defendatzea.
- Erakunde ofizial eta partikularrekin batera ingeniartzaren aurrerapena eta garapena lagunduko duten ekimenak sustatzea eta horietan parte hartzea, bai eta gizartearen zerbitzura jartzea ere.
- Lanbidearekin erlazionatutako jarduera zientifiko, tekniko eta ekonomikoak sustatzea, bai eta gizarte-jarduerak eta kultur jarduerak ere.

Azken finean, elkargokideen lanbide-jarduna hobetzera zuzentzen diren ekintzak sustatu, euskarria eman eta koordinatu nahi dira, herritarren eskubideak ziurtatzeko modu bezala.

Zer proiektu aurkeztu duzu Eraikal-en deialdietan?

Coatbi: Eraikal Sei (2003-2005), Sei luzapena (2004-2006), Zortzi (2006-2008), Bederatzi (2007-2009) eta Hamar (2008-2010) deialdietan parte hartu du Coatbi-k.

Hain zuzen ere, **Eraikal Sei (2003-2005)** deialdian, proiektuaren ardatza “*Bizkaiko Aparailari eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialean* eta enpresa elkargokideetan UNE-EN ISO 9001:2000 araberako Kalitatea Kudeatzeko Sistemen ezarpena” izan zen. Coatbi-k eta bi enpresa elkargokideek kalitate-ziurtapena lortu zutenean, amaitutzat eman zen proiektua. Coatbi-k garatutako ekimenen artean, azpimarratzekoa da “*Arkitektura Teknikoaren Kalitatearen Gida*” izeneko jardunaldia antolatu zuela 2004/11/15 egunean.

Eraikal Sei luzapena (2004-2006) deialdiaren barruan, hiru enpresa elkargokideek lortu zuten kalitate-sistemaren ezarpena ziurtatzea.

Eraikal Zortzi (2006-2008) deialdiaren barruan lau proiektu desberdin garatu ziren:

- “UNE-EN ISO 9001:2000 arauaren arabera kalitatea kudeatzeko sistema baten ezarpena, txosten eta peritazio judizialak lantzeko. Ekimen horrekin Coatbi-k aurretik ekindako lan eragileari jarraipena eman nahi zitzaion, hain zuzen ere, arkitekto teknikoek erakundeetan (pertsone bakarreko edo taldeko erakundeetan) UNE-EN ISO 9001:2000 arauaren arabera kalitatearen ziurtapena lortzeko lan egiten jarraitu zen, txosten, ebazpen, ziurtapen eta peritazio judizialen berriazko atalaren barruan. Hiru enpresa elkargokideek lortu zuten aipatutako ziurtapena.
- “*Bizkaiko Aparailari eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialeko* bazkide diren enpresa-taldeetan ISO 9001:2000 arauaren arabera kalitatea kudeatzeko sistema baten ezarpena”. Oraingoan, Coatbi-k hedapen-lan izugarria egin bazuen ere -“*Aldizkaria*” izeneko argitalpenean “*Kalitatea lehiatzeko abantaila gisa*” artikulua idatzi zuen eta hitzaldi bat antolatu-, ez zuen nahi beste interes piztu eta, ondorioz, proiektua bertan behera geratu zen.
- “*On line segurtasunaren eta osasunaren koordinatzaileen ikastaroa*”. Ikastaroak arkitekto teknikoek eskura ezagupen osagarriak jartzea zuen helburutzat, proiektu-fasean eta gauzatze-fasean koordinazio-lanak bete zitzaizkien. Izan ere, arkitekto teknikoek Laneko Higienearen Institutu Nazionalak argitaratutako “*Eraikuntza-obretako arriskuen ebaluazioa eta prebentzioa egiteko gida teknikoak*” ezarritako gutxiengo edukiekin bat egitea lortu nahi zen.
- “*Berrikuntzarako eta kalitatea kudeatzeko plataforma digital bat diseinatzea eta martxan jartzea*”: Proiektu honen helburuak honakoak ziren:
 - Coatbi-ren web-orrian berrikuntzari eta kalitatearen kudeaketari buruzko espazio bat uztea.
 - Elkargokideei eta, oro har, erabiltzaileei, kalitatea kudeatzeko sistemen garapen, ezarpen eta ziurtapenari buruz eta horien integrazioari buruz informazioa ematea (kalitatea – ingurumena – segurtasuna).
 - Eraikuntzaren sektorearekin erlazionatutako agiriak, esperientziak eta jardunbide egokiak zabaltzea.

Eraikal Bederatzi (2007-2009) deialdiak, berriz, on line segurtasunaren eta osasunaren koordinatzaileentzako ikastaroaren edizio berri baten garapena izan zuen ardatz gusutzat.

Eraikal Hamar (2008-2010) deialdian Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Elkargoek aurkeztutako proiektu berritzaile bat barne hartu da, hain zuzen ere: “*EAEko eraikuntza-obretan kalitatearen kontrola kudeatzeko tresna*”. Urriaren

22ko 238/1996 Dekretua eta Eusko Jaurlaritzaren 2008ko apirilaren 16ko Agindua, Eraikuntzaren Kode Teknikoa (314/2006 ED, martxoaren 17koa) eta Egitura Hormigoiaren Instrukzioa (EUE-08) (1247/2008 ED, uztailearen 18koa) betetzen ditu aipatu proiektuak. Gainera, on line segurtasunaren eta osasunaren koordinatzaileentzako ikastaroaren edizio berri bat egin da.

Coatg: Deialdi desberdinetan aurkeztutako proiektuak honakoak dira:

- **Eraikal Bost (2002-2004):** 3 enpresa, ISO 9001 ezarpen bat eta ISO 9001:2000 arauaren bi egokitzapen.
- **Eraikal Sei luzapena (2004-2006):** eraikuntza-obretan laneko arriskuen prebentzioa ezagutzeko prestakuntza-ekintza.
- **Eraikal Zortzi (2006-2008):** laneko segurtasunaren eta osasunaren koordinatzaileentzako prestakuntza-ikastaroa.
- **Eraikal Bederatzi (2007-2009):** eraikuntza-obren segurtasunari eta osasunari buruzko jardunaldiak eta laneko segurtasunaren eta osasunaren esparruko erabilera-eskuliburu bat arkitekto teknikoentzat.
- **Eraikal Hamar (2008-2010):** eraikuntzako arriskuak prebenitzeko prestakuntza-plana, estudio batean UNE-EN ISO 9001:2000 kalitatea kudeatzeko sistema baten ezarpena, obra gauzatzen den bitartean segurtasunaren eta osasunaren esparruko koordinatzailearen gida bat eta eraikuntzaren sektorearen etengabeko hobekuntza lortzeko prestakuntza-plan bat.

Coavn: Coavn elkargoak lehen deialditik parte hartu du **Eraikal**-en. Lehen bietan arkitektura-proiektuetan kalitate-sistemak ezartzeko proiektuekin (1998-2000) eta arkitektura-estudioetako arkitektura-proiektuetan kalitate-sistemak ezartzeko proiektuekin. **Eraikal Hiru**-tik aurrera, arkitektura-estudioetan kudeaketa-sistemen ziurtagiriaren lortzea izan da ardatza. Honakoak deialdietan aurkeztutako enpresa kopurua:

- **Eraikal Hiru (2000-2002).** Bizkaiko 9 estudiotan ISO 9001 ezarpena.
- **Eraikal Lau (2001-2003).** 32 estudiotan ISO 9001 ezarpena: 10 Araban, 11 Bizkaian eta 11 Gipuzkoan.
- **Eraikal Bost (2002-2004):** 7 estudiotan ISO 9001 ezarpena.
- **Eraikal Sei (2003-2005):** 15 estudiotan ISO 9001 ezarpena: 5 Araban, 6 Bizkaian eta 4 Gipuzkoan. ISO 9001 ezarritako estudio batek ISO 14001 ezarpena egiteko diru laguntza eskatu zuen.
- **Eraikal Sei luzapena (2004-2006):** ISO 9001 ezarpena 7 estudiotan (4 Bizkaian eta 3 Gipuzkoan). 2 estudiotan ISO 14001 ezarpena: 1 Araban eta bestea Gipuzkoan. Horietako batek ISO 9001ean parte hartu zuen, halaber, deialdi berean, eta besteak aurreko deialdian egin zuen.
- **Eraikal Zortzi (2006-2008):** 14 estudio. 9 estudiotan ISO 9001 ezarpena eta 4 estudiotan hainbat konbinazio: ISO 9001, ISO 14001 ingurumena, OHSAS 18001 laneko arriskuen prebentzioa eta UNE 150301 ekodiseinua edo ingurumen-kudeaketa diseinuaren prozesuan.
- **Eraikal Bederatzi (2007-2009):** 12 estudio, hainbat konbinazio: ISO 9001, ISO 14001 eta UNE 150301.
- **Eraikal Hamar (2008-2010):** 23 estudio, hainbat konbinazio: ISO 9001, ISO 14001 eta UNE 150301.

Coib: **Eraikal Hamar (2008-2010)** deialdiaren eskutik laguntza-programa honetan parte hartzeko atea ireki zitzaizen bizitegi-sektorerako lanak egiten zituzten ingeniari-taldeen enpresei.

Aukera horren aurrean, *Bizkaiko industri ingeniarien elkargo ofizialak* 2008-2010 kudeaketa-sistemak hobetzeko bere lehen proiektua aurkeztu zuen eta, ahal izanez gero, etorkizunean onartzen diren deialdietan parte hartzen jarraitzeko gogoia erakutsi du.

Zer arrazoi eduki duzu Eraikal-en deialdietan parte hartu ala ez erabakitzeko?

Coatbi: Arkitekto teknikoaren profil profesionalak denboran aldaketa sakonak ezagutu baditu ere eraikuntzaren esparruaren barruan, beti egon da eraikuntza-prozesuaren kontrolarekin lotuta, modu batera zein bestera. Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legeak eraikin baten eraikuntzan parte hartzen duen eragile bakoitzari zegozkion funtzioak eta betebeharrak ezarri zituztenean, arkitekto teknikoari egotzi zion etxebizitzaren eraikuntzaren

gauzatze materialaren zuzendaritza-ardura, hortaz, bere ardurapean uzten ziren obraren alderdi kuantitatiboak zein kualitatiboak.

Kalitatearen kontrola dagokigun lanbidearekin betidanik erlazionatuta egon den jarduera bat izanik, *Coatbi-k*, Eusko Jaurlaritzarekin batera, lan handia egin du gure autonomia-erkidegoan eraikuntzaren kalitatearen kontrolarekin lotutako dekretuak lantzeko, ezagutzera emateko, ezartzeko eta jarraipena egiteko.

Kalitatearekiko hartu den konpromisoaren ondorioz, halaber, *Saiatek*, *SL* entsegu-laborategia sortu zen 1988an.

Kalitatearen kontrola izan da, beti, lehentasunezko jarduera-arloetako bat, *Coatbi-k* bere elkargokideei eskainitako etengabeko prestakuntza-jardueretan eta egin dituen argitalpenetan.

Kaliterako teknikak ezagutu duten bilakaerak agerian uzten du materialen kalitatearen kontrola egiteaz gain, ezinbestekoa dela obra batean parte hartzen duten teknikariek etengabeko hobekuntzarako prozedurak aplikatzea, bai eraikuntza-prozesuan, bai zerbitzuak eskaintzean.

Coatg: Gipuzkoako Aparenadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofiziala programaren berri izan bezain laster hasi zen parte hartzen **Eraikal** programan. Horrela, **Eraikal Bost (2002-2004)** programarekin batera, prestakuntza-saio bat sustatu zen Gipuzkoako aparenadoreekin eta arkitekto teknikoekin. Prestakuntza-saio horren bitartez ezagutzera eman ziren eraikuntzaren sektoreko enpresetan kalitatea kudeatzeko sistemak eta ingurumena kudeatzeko sistemak ezarri ahal izateko bete beharreko baldintzak.

Beranduago, erakunde eragilea garen neurrian **Eraikal** programaren printzipioak -kalitatea kudeatzeko sistemak hobetzea, iraunkortasuna sustatzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresetan berrikuntza laguntzea- lortzeko dagokigun zeregina ezagututa, hainbat proiektu sustatu ditugu Elkargotik, eta harrera bikaina lortu dute, gainera, gure elkargokideen eta sektoreko gainerako profesional eta enpresen artean.

Coavn: Arkitektura-estudioetarako proiektu interesgarria, estudioetan kalitateari eusteko. Estudioek ziurtatzeko aukeratan dituzten arauak aldatu direla ikus daiteke: **Eraikal Bost (2002-2004)** arte ISO 9001 bakarrik; **Eraikal Sei (2003-2005)** eta **Sei luzapenean (2004-2006)** ISO 14001 agertu zen eta **Eraikal Zortzitik (2006-2008)** aurrera UNE 150301 indartu da.

Coiib: *Coiib* elkargoak ez du **Eraikal Hamar (2008-2010)** deialdi arte parte hartu programan, ez zuelako ondo eza gutzen programa eta ez zuelako berari buruzko informazio nahikoa.

Behin **Eraikal** programa ezagutu eta gero, eta ingeniaritza-enpresek parte hartzeko bete behar dituzten eskakizunak egiaztatu eta gero, *Coiib* elkargoak bere lehen proiektua lantzea erabaki zuen. Bere elkargokideen lanbide-jarduna hobetzeko ekintza oro sustatu eta indartzeko helburuarekin egin zuen, elkargoko estatutuetan barne hartutako helburuak eta elkargo horrek herritarren eskubideak bermatzeko hartu duen konpromisoa betez.

Deskribatu Eraikal-en proiektuen barruan agente eragile gisa elkargokideen artean egindako lana .

Coatbi: Arkitekto teknikoaren artean UNE-EN ISO 9001:2000 arauaren arabeko kalitate-sistemen ezarpena sustatu nahian, *Coatbi-k* ahalegin handia egin behar izan zuen aldatetako erdiesteko: jarduera bera eta elkargokideen jarrera aldatu behar zituen eta, ondorioz, eragile gisa zegokion parte-hartzea aldatu behar zuen ezinbestean.

Zentzu horretan, gure konpromisoa honako xede hauek lortzera zuzendu da:

- Barne-antolakuntza hobetzea
- Langileen kontzientziaketa eta inplikazioa sustatzea, eskainitako zerbitzuak hobetzeko.
- Bezeroaren aletasuna areagotzea

Coatg:

Coavn: **Eraikal** programaren funtzionamenduaren azalpena, kudeaketa-araudi bakoitzaren deskribapena eta egokitasuna aztertuz.

Diru laguntza lortzeko aurkeztu behar diren agiriak izapidetzea.

Coiib: *Coiib* elkargoak agente eragile gisa betetzen duen lana, **Eraikal Hamar (2008-2010)** programan parte hartzeko konpromisoa hartu zuen egunean bertan hasi zen. Ildo horretan, besteak beste hedapen-lanak bete ditu bere elkargokideen eta enpresa elkartuen artean.

Proiektua abiarazi zenetik, etengabekoa izan da Elkargoaren eta parte-hartzaileen arteko komunikazioa, aholkularitza eman eta informazioa trukatu eta jasotzeko; eta, emaitza gisa, “2008-2010 kudeaketa-sistemak hobetzeko proiektua” landu da eta datozen hilabeteetan osatuko dira horren jarraipen-txostenak.

Bestalde, aurkeztutako proiektuan adierazi moduan, *Coiib* elkargoak enpresa parte-hartzaileen artean esperientziak trukatzeko topaguneak eta foroak erraztu ditzake, eta **Eraikal Hamar** programan izandako esperientzia beste enpresa batzuei ezagutzera emateko jardunaldiak antola ditzake, elkargoaren prestakuntza-atalaren bitartez.

Gure lehen esperientzia denez, martxan diren ezarpen-proiektuak gehiago garatu behar ditugu, aurreikusitako jarduerak antolatu ahal izateko.

Adierazitakoaz gain, *Bizkaiko industri ingeniariaren elkargo ofizialak*, bere estatutuei helduta bere elkargokideen artean etengabeko prestakuntza, eta prestakuntza teknikoa nagusiki, sustatzeko hartutako konpromisoa betetz, ikastaroa egiteko baldintzak errazten ditu eta diruz laguntzen ditu elkargokideak. Era berean, *Coiib*-k berak edo beste erakunde batzuk kalitatearen eta ingurumenaren kudeaketarekin erlazioan antolatutako hitzaldietan parte hartzen laguntzen die elkargokideei. Horrela, 2008an honako jardunaldi eta hitzaldi hauek antolatu ziren:

- Berrikuntza kudeatzeko metodoak eta tresnak (2008ko maiatza).
- Kalitatea eta berrikuntza: Lehiakortasun iraunkorrerako binomioa (2008ko azaroa).
- Berrikuntza eta industria: Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentzia (2008ko abendua).

Nola deskribatuko zenuke Eraikal programetan izandako esperientzia?

Coatbi: Gure elkargoak parte hartu zuen **Eraikal-en** lehen deialdietan, **Eraikal Sei (2003-2005)** eta **Sei luzapena (2004-2006)** deialdietan hain zuzen ere, elkargokideek interes handiagoa zuten kalitatea kudeatzeko sistemen gainean, eta horren froga dira deialdi horietan izandako parte-hartzearen datuak. Deialdi guztietan bere laguntza eta lankidetzak eskaini du *Etxebizitza Sailak* proiektuen ezarpena egiteko; ez du inoiz huts egin.

Coatg: Nire esperientzia pertsonala, hasieratik, benetan atsegina izan da. Eta atsegina diot, kudeaketa-lanak izugarri erraztu direlako eta hurbileko jarraipena egin delako. Horrela, bete nahi diren helburuak sustatu eta behar den bezala garatzeko orduan aurrerapen handia lortu da, gure elkargokideen artean zein Elkargoan bertan.

Coavn: Interes-maila desberdina ikusi da elkargokideen artean; kudeaketa-lanak nabarmenki erraztu dira eta *Etxebizitza Sailak* hurbiletik lagundu du.

Eusko Jaurlaritzak laguntzak ematen baditu ere, edozein araureraren ezarpena egiteak eta horren ziurtapena mantentzeak inbertsio handia egitea eskatzen die arkitektura-estudioei. Hori dela eta, *Coavn*-ek zein kanpo-aholkularitza egiten ari den enpresak, arkitektura-estudioen funtzionamendua eta errentagarritasuna hobetzeko helburua dute. UNE-EN ISO 9001:2000 araureraren arabera, kalitatea kudeatzeko sistema dokumentatu baten ezarpena sei hilabeteetan egin daiteke, aholkularitza-enpresak ondo ezagutzen baditu estudioak, bai eta garatzen duten lana eta kalitatea kudeatzeko prozeduren ezarpenean izango dituzten zailtasunak ere.

Coiib: **Eraikal Hamar** deialdiak euren enpresetan edo hirugarrenen enpresetan kalitatea kudeatzeko sistemen ezarpenean aktiboki parte hartzen zuten industria-ingeniari elkargokideen interesa bereganatu zuen, aholkulari gisa garatzen zuten jarduerak hobetu nahian.

Horrela, “2008-2010 kudeaketa-sistemak hobetzeko proiektuarekin”, eraikuntzaren sektoreko 7 enpresak -5 ingeniari-entrepresa eta beste 2 enpresa- kudeaketa sistemak ezartzeko proiektuei ekiteko konpromisoa hartu zuten.

Elkargoak agente eragile gisa duen lehen esperientzia izanik, pozgarria izan da parte-hartzaile guztiek lankidetzarako erakutsitako gogoia eta jarrera egokia. Horrela, aurreko edizioetan parte hartu duten agente eragileek euren esperientziak partekatu dituzte gurekin eta *Etxebizitza Sailak* une oro lagundu digu eta proiektua lantzean izandako

zalantzak argitu dizkigu. Eta hori guztia, **Eraikal**-en deialdietan parte hartu duten agenteen konpromisoaren filosofian emaitza dela goraiatu nahi dugu.

Zer emaitza lortu duzu agente eragile gisa? Zer emaitza lortu dituzte elkargokideek?

Coatbi: UNE-EN ISO 9001:2000 kalitatea kudeatzeko sistemaren ezarpena lortu du Elkargoak eta, horri esker, hainbat alderdi hobetu ditu, besteak beste: erakundearen kudeaketaren plangintza estrategikoa eta egiten duen lanaren neurketa hobetu dira (kudeaketa-adierazle egokiak erabiliz), eta arreta handiagoa jarri da elkargokideei eskaintako zerbitzuen asetunaren ebaluazioaren gainean.

Agente eragile gisa lan handia egin da elkargokideen artean kalitatea kudeatzeko sistemen kultura zabaltzeko. Ildo horretan, ziurtapena lortu duten elkargokideek euren enpresen barne-kudeaketa egitean erakutsitako eraginkortasuna hobetu dute eta, gainera, herri-administrazioak eta bezeroek enpresen lana aitortzea lortu da.

Coatg: Agente eragile gisa betetzen dugun lanari dagokionez, pozgarria izan da aparejadore eta arkitekto teknikoen taldea etengabeko hobekuntza lortzeko bidean jarri izana. Elkargokideei dagokionez, diruz lagundutako berariazko prestakuntza-programak eta tresna informatikoak erabili ahal izan dira, guztien garapen profesionala lortzeko.

Coavn: 2000-2002 urteko deialdiarekin, **Eraikal Hiru**, hamasei arkitektura-estudiok -zortzi Bizkaian eta zortzi Gipuzkoan- kalitate-sistema dokumentatuaren ezarpenari ekin zioten. Guztiek lortu zuten *Aenor* erakundearen ISO 9001 ziurtapena. Azpimarratzekoa da, ildo horretan, Elkargoak diru laguntzak doitzeko egin zuen lan handia, izan ere, hasierako proposamenean Bizkaian 9 estudioen ziurtapena bakarrik aurreikusi zen. Emaitza bikain horiek berehala eman zituzten ezagutzera arkitekto guztien artean *Coavn* elkargoaren Dekanatuak eta lurralde-ordezkaritzek, eta **Eraikal Lau** deialdiarekin batera, lurralde-ordezkaritza bakoitzetik arkitekto talde bat animatu zen euren estudioetan kalitate-sistema dokumentatu baten ezarpena egitera, ISO 9001 arauaren arabera.

Eraikal Lau (2001-2003) deialdiari helduta, Araban bost estudiok lortu zuten ziurtapena; hamabost izan ziren Bizkaian eta bederatzi, azkenik, Gipuzkoan. Modu berean, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde-ordezkaritzek kalitate- eta ingurumen-sistemaren ezarpena egin eta ziurtapena lortu zuten.

Beranduago, **Eraikal Bost (2002-2004)** deialdian, prestakuntza hasia zuten zazpi estudioek lortu zuten ziurtapena (bat Araban eta sei Bizkaian). Bizkaiko ordezkaritzan eta Gipuzkoakoan segurtasun- eta osasun-sistema bat ezartzeko lanekin jarraitu zuten, lehen aipatutako kalitatea eta ingurumena kudeatzeko sistemaren barruan integratuta.

Eraikal Sei (2003-2005) deialdian ISO 9001 ziurtapena lortu zuten Arabako estudio batek, Bizkaiko bik eta Gipuzkoako batek.

Eraikal Sei luzapenean (2004-2006) ISO 9001 ziurtapena lortu dute Bizkaiko lau estudiok eta Gipuzkoako batek. Gipuzkoako estudio batek ISO 9001 eta ISO 14001 ziurtapenak lortu ditu.

2008ko maiatzean ireki zen **Eraikal Zortzi (2006-2008)** deialdia. Bertan, diru laguntza bat aurreikusten da ISO 9001 kalitate-arauak, ISO 14001 ingurumen-araua, OHSAS 18001 laneko arriskuen prebentzioko araua eta UNE 150301 Ekodiseinua edo ingurumen-kudeaketa diseinuaren prozesuan araua ezartzeagatik. Prozesuren bati ekin zioten, bestalde, Arabako hiru estudioetan, Bizkaiko bitan eta Gipuzkoako lautuan. 2008 amaieran sei estudiok zuten ISO 9001 ziurtapena, batek zituen OHSAS 18001 eta UNE 150301 eta beste batek ISO 14001 eta UNE 150301.

2007 amaieran **Eraikal Bederatzi (2007-2009)** programaren barruan taldeak bereizi ziren behin betiko eta lau arau barne hartzeko aukera eskaini zitzaion. Araban hiru estudiok eman zuten izena; lau izan ziren Bizkaian eta bost, azkenik, Gipuzkoan. Zenbaitek ezarpen-prozesua hasita zuten jada. 2008ko abenduaren amaieran, Arabako bi estudioetan, Bizkaiko beste bitan eta Gipuzkoako bost estudioetan lortuak zituzten sistema desberdinen arabeko ziurtapenak.

2009ko martxoan egin da **Eraikal Hamar (2008-2010)** deialdia, beraz, goiz da oraindik emaitzak neurtzeko.

Coiib: *Coiib* elkargoak **Eraikal**-en egindako lehen parte-hartzean, "2008-2010 kudeaketa-sistemak hobetzeko proiektuan" parte hartzen duten zazpi enpresek kudeaketa-sistemak ezartzeko aurkeztu dituzten bederatzi proiektuek lortu dute diru laguntza (zazpi ISO 9001 proiektuak dira, bat ISO 14001 eta bi UNE-150301).

Aholkularitzak eta ziurtapenak eragindako kanpo-gastuen % 50eko diru laguntza lortu da.

Eraikal bezalako ekimenak eraginkorrak al dira Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresetan kalitatea, iraunkortasuna, segurtasuna eta berrikuntza sustatzeko?

Coatbi: Bai, aipatutako guztiak benetan lagungarriak dira aurrera egiteko ,bizitegi-eraikuntza bezalako sektore batean, non gizarte-interesari erantzun behar zaion nahitaez.

Coatg: Zalantzarik gabe, eraikuntzaren sektoreko enpresek eta talde profesionalak pizgarriak behar dituzte eten-gabe, horrela lortuko baita prozesuak optimizatzeke eta ezagupenak hobetzeko ekimen berriak abian jartzea eta etengabeko hobekuntzarako bidean lortutako emaitzen jarraipena egitea.

Coavn: Bai

Coiib: *Coiib*-ren ustez, **Eraikal** moduko ekimenek, ekoizpen-jardueraren sektore zehatzak ardatz dituztenek (bizitegi-eraikuntza adibidez), sektoreko enpresak kalitate-sistemek merkatuan hobetzeko duten garrantziaz ohartarazteko balio dute (kalitatea eta ingurumena kudeatzeko sistemak, ekodiseinua, etengabeko hobekuntza eta I+G+b).

Horrez gain, sistema horiei esker enpresaren lehiakortasuna eta sistemaren ezarpena eta mantentzea hobetu egiten dira eta, halaber, ukazina da enpresek prozesuak kontrolatzeko duten gaitasuna areagotzen dela eta pixkanaka prozesuak hobetzeko neurriak barne hartzen direla (aipatutako sistema bakoitzak dituen irizpideen araberrako neurriak).

Nola baloratzen dituzue Eraikal programaren hamar edizioak?

Coatbi: Balorazioa oso positiboa da. *Coatbi*-ri dagokionez, erakundean bertan kalitatea kudeatzeko sistema baten ezarpena egin da eta, ondorioz, antolamendu-egitura aldatu da. Bere enpresa elkargokideentzat agente eragile gisa lan egitera pasa da eta, horri esker, kalitatea lortzeko bidean jarri ditu eta lan egiteko modua aldatzen lagundu die. Horrez gain, egindako parte-hartzeak bizitegi-eraikuntzaren sektoreko teknologia berrien esparrura berrikuntza eramateko balio izan dio elkargoari.

Coatg: Positiboa zalantzarik gabe. **Eraikal** programan parte hartu dugun azken sei urteei helduta, zera azpimarratuko nuke: lehenetara eman diogu langileen segurtasuna eta osasuna eta laneko arriskuen prebentzioa bezalako arlo garrantzitsuei buruzko ezagupenak hobetzeko beharrari.

Modu berean, kalitatea hobetzeko lan egin dugu: sektoreko profesionalak eta enpresek jarraitzen dituzten prozesuen eta prozeduren kalitatea hobetzeko eta langileei etengabeko prestakuntza eskaintzeko.

Coavn: Hamar urteotan, sektorean ezarri beharreko araudiagatik edo gizarteak erakutsitako kontzientziazioagatik, gero eta garrantzi handiagoa ematen zaie iraunkortasunaren eta eraginkortasun energetikoaren irizpideei. **Eraikal** programen ezaugarri nagusietakoak dira aipatutako biak, baliabideen administrazio egokiarekin batera.

Gero eta estudio gehiago ari dira animatzen ezarpena egitera eta denbora gutxiagoan lortzen dute gainera, lanbide honen kalitatea agerian utziz.

Coiib: *Coiib* elkargoari ezinezkoa zaio bere esperientziaren balorazioa egitea, parte hartzen duen lehen edizioa delako. Hala ere, argitaratutako emaitzak ikusita, begi bistakoa da sektoreak ezagutu duen bilakaera positiboa.

Guztiarekin, aipatzekoa da ez dela lortu bizitegi-eraikuntzaren sektorearekin lotutako beste elkargo profesional batzuk parte hartzea (ingeniari teknikoak, bide-ingeniariak, geologoak, industria-ingeniarien elkargoak, eta abar). Guztiek aukera dute **Eraikal**-en etorkizuneko deialdietan agente eragile gisa jarduteko.

Coiib-ren ustez, programa zabaltzeko ekimenak garatuko balira, helburuak lortzeko lana erraztuko litzateke.

Zer alderdi positibo azpimarratuko zenuke Eraikal-etik?

Coatbi: Pertsona bakarreko enpresei kalitatea kudeatzeko sistemen ezarpenean laguntzen zaie. Izan ere, laguntza hori ezean, oso gutxi animatuko lirateke horrelako sistemen ezarpena egitera. Era berean, proiektu berritzaileak gauzatzeko aukera ematen du.

Coatg: Diru laguntza moduan ematen den pizgarri orok harrera bikaina izan ohi du enpresen artean, batez ere diru laguntza jasotzen duen aldeak etengabeko hobekuntzaren aldeko apustua egin badu. Are gehiago, gaur egun jarduerak ezagutu duen beherakada ikusita. Horrenbestez, ekindako lerroari eusteko bulkada erabakigarria ematea komeniko litzateke.

Coavn: Jardun profesionala garatzeko estudioak antolamendu egokia lortzen du eta, ondorioz, talde osoaren jarduera hobetzen da.

Coiib: Enpresek, taldeek eta agente eragileek parte hartzen dute, sektorean hobera egiteko beharraren garrantzia eta **Eraikal**-ek bete nahi dituen helburuak lortzeko beharraren garrantzia helaraziz.

Kasuan kasu sektoreko enpresetan kalitatea, iraunkortasuna eta berrikuntza sustatzeko ekimenak abiarazteko motibazioa areagotzeko eta pizteko balio du.

Zer alderdi hobe daiteke Eraikal-en?

Coatbi: Diruz laguntzen den kopurua areagotu beharko litzateke, interes handiko esku hartzeko eremuak direlako.

Coatg: **Eraikal** programa garatzeko prozedura arina eta erraza da, eta administrazioak programaren jarraipena egiten duela kontuan hartuta, programak dituen helburuak lortzeko funtzionamendu orokorra bikaina da.

Coavn: Informazio gehiago iristea elkargokideei araudiei buruz (informazio praktikoa zein orokorra).

Coiib: **Eraikal** programan sartzean, agente eragileen multzo zabalago batekin batera lan egiteko aukera sortzen da (lehen aipatutako elkargo profesionalekin, adibidez), sektorearen barruan programaren helburuak eta laguntzak hobeto ezagutzera emateko.

Etorkizunera begira zer ekintza-lerro barne hartu beharko litzuzke Eraikal-ek?

Coatbi: Bizitegi-eraikuntzara aplikatutako teknologia berriek izan beharko lukete etorkizuneko ekintza-lerroen xede nagusia.

Coatg: Beste agente batzuekin elkarlanean jarduteko lerroak abiarazi beharko lirateke, EAEko teknologia-zentroekin, adibidez. Hartara, bakoitzak bere proposamenak aurkezteaz gain, deialdi bakoitza egin aurreko fasean, enpresa eragileekin gara daitezkeen proiektuak osatzeko aholkularitza eman daiteke. Oso lagungarria izango litzateke, zenbait erakunde eragileren kasuan behintzat, izan ere, noranzko bakar horretan lan egiteko eragozpenak izaten dituzte eguneroko lanean.

Coavn: Ziurtapena lortzeko duen garrantziaz sentsibilizatzea estudioak. Estudio askok irizpide ekonomikoengatik bakarrik egiten dituzte ziurtapenak, edo lanak edo lehiaketak lortzeko aukerak areagotzearen.

Coiib: Ezinezkoa zaigu proposamenik aurkeztea, oso laburra baita *Coiib* elkargoak **Eraikal** programan egin duen ibilbidea.

HONDEAKETA LANAK ETA LURRA MUGITZEKO LANAK EGITEN DITUZTEN ENPRESEN ELKARTEEN GALDEKETAK



Itxaso González, Aexal-Arabako hondeatzaileen elkarteko administrazio-kudeatzailea. Aexal-en barruan Arabako 38 hondeaketa-enpresa eta lurra mugitzeko lanak egiten dituzten enpresa daude eta elkarteko kide guztiei aholkularitza eta informazioa emateaz arduratzen da.



Andoni Pascual, Ave-Bie elkarteko idazkari orokorra. Asociación vizcaína de excavadores-Bizkaiko induskari elkarte (Ave-Bie) 1977an sortu zen eta Bizkaiko lurraldean kokatutako hondeaketa eta lurra mugitzeko lanen esparruko 140 enpresa txiki, ertain eta handi biltzen ditu. Ave-Bie elkartearen helburu nagusia da erakunde publiko eta pribatuen aurrean bere kideen ordezkari izatea. Xede horrekin, azpikontratistaren irudia onartzeak eta enpresa kontratistekiko harremanak hobetzeak duen garrantzia azpimarratzen da elkartetik.

Zer proiektu aurkeztu duzu Eraikal-en deialdietan?

Aexal: Proiektu bat 2003an, **Eraikal Sei (2003-2005)** deialdiaren barruan. Kudeaketa-sistema integratuen ezarpena egin da sei enpresatan: horietatik bostean kudeaketa-sistema bat, ingurumen-sistema bat eta kalitate-sistema bat ezarri dira, eta bestean laneko arriskuak prebenitzeko sistema bat.

Ave-Bie: Ave-Bie-k azken bi deialdietan parte hartu du. Lehenengoan (**Eraikal Bederatzi, 2007-2009**) etengabeko hobekuntzarako proiektu bat aurkeztu zen, ISO 9001 kalitate-ziurtapena, ISO 14001 ingurumen-ziurtapena eta OHSAS 18001 laneko arriskuen prebentzioaren ziurtapena lortzeko interesa zuten hamaika enpresarentzat; batzuk hiru ziurtapenak egingo zituzten, bi beste batzuk eta bakar bat beste batzuk.

Eraikal Hamar (2008-2010) deialdian hamazazpi enpresak parte hartuko dute eta proiektu bikoitza aurkeztu dugu: ziurtapen bat baino gehiago bateratzen duten enpresetarako bat, eta ziurtapen bakar bat bateratzen dutenatarako bestea.

Zer arrazoi eduki duzu Eraikal-en deialdietan parte hartu ala ez erabakitzeko?

Aexal: Kudeaketa-sistemen ezarpena egin nahi zuten enpresak zeudenez, elkarteak laguntzea erabaki zuten, aukera bikaina zela uste izan zuelako.

Ave-Bie: Elkartera sartu nintzenez, esparru honetan egin behar genuen lana ezagutzen nuen eta jakin banekien sektoreko enpresek ziurtapen bat lortzeak, sektorearen lehiakortasuna hobetzea ekarriko lukeela eta, era berean, obra publikoko lizitazioetan diskriminazio positiboa egitea lortuko litzatekeela. Gure elkarteko hainbat enpresak aurreko deialdi batzuetan beste erakunde eragile batzuekin batera parte hartu zutela baieztatu nuen, eta Ave-Bie elkarteak proiektu propio bat landu eta programan parte hartu behar zuela erabaki genuen.

Deskribatu Eraikal-en proiektuen barruan agente eragile gisa elkargokideen artean egindako lana

Aexal: Txostenak landu, kudeaketa-sisteman lortutako aurrerapen-mailaren jarraipena eta enpresen diru laguntzen ordainketak egin, lortutako helburuen arabera.

Ave-Bie: Urtero zirkularrak landu eta zabaltzen ditugu, enpresen artean kudeaketa-sistema bat edo gehiago edukitzeak duen garrantzia azpimarratzeko, bai eta **Eraikal** proiektuetan Ave-Bie-rekin batera parte hartzeko aukera ezagutzera emateko ere. Sentsibilizazio-lan horren barruan, bisita pertsonalak egiten dira enpresetara.

Modu berean, gure elkarteak bi hilean behin argitaratzen duen *excAVE* argitalpenean horrelako ekimenak ezagutzera ematen ditugu eta aurreko edizioetako parte-hartzaileei buruz hitz egiten dugu. Horrekin guztiarekin parte hartzea animatzen ditugu enpresak, aukera-berdintasuna ziurtatuz.

Nola deskribatuko zenuke Eraikal programetan izandako esperientzia?

Aexal: Esperientzia positiboa izan da, baina elkarteko kide diren zenbait enpresa mesfidati agertu dira kudeaketa-sistemen ezarpenaren aurrean.

Ave-Bie: Oso positiboa izan dela esan dezaket. Programan parte hartu duten enpresek, aholkularitza-enpresek eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak berak lana erraztu digute izugarri, batez ere Etxebizitza Sailak. Nire kezka "pairatu" behar izan ditu, hasieran batez ere, metodologia ezezaguna denean. Zentzu horretan, esker-erak eman nahi nizkioke *Aeieb-Bizkaiko instalatzaile elektriko eta telekomunikazioen enpresa elkarteko* idazkariari, **Eraikal Bederatzi (2007-2009)** deialdian aurkeztu genuen gure lehen proiektua lantzeko emandako laguntzagatik.

Zer emaitza lortu duzu agente eragile gisa? Zer emaitza lortu dituzte zure elkargokideek?

Aexal: Agente eragile gisa, enpresa parte-hartzaileei euren helburuak betetzen lagundu zaie. Elkargokideen ikuspegitik, helburuak betetzeko eta kudeaketa-sistemak ondo ezartzeko laguntza eman da. Azkenik, enpresa bakar batek lortu zuen bi sistemetan ziurtatzea: ISO 9001 (kalitatea) eta ISO 14001 (ingurumena).

Ave-Bie: Horrelako ekimenak oso lagungarriak dira enpresekin harreman zuzenak edukitzeko eta euren kezka eta beharrak ezagutzeko, **Eraikal**-en programan parte hartu ala ez. Gauzak horrela, beste mota bateko ekimenak garatu ahal izan ditugu, eta zenbait kasutan baieztatu ahal izan denez, **Eraikal Bederatzi (2007-2009)** deialdian ziurtapen bat lortu zuten enpresa askok aurrerapauso bat eman dute **Eraikal Hamar (2008-2010)** deialdian parte hartuz.

Enpresei dagokienez, eguneroko kudeaketa hobetu dela baieztatu ahal izan da eta horrelako lorpen bat funtsezkoa da gurea bezalako sektore batean.

2009 amaiera arte irekita egongo da **Eraikal Bederatzi (2007-2009)** deialdia, hortaz, oraindik ez dugu eskura enpresa ziurtatuen azken emaitzarik gure parte-hartzearen balantzea egin ahal izateko. Emaitzak aurreratzeko moduan gaude hala ere: 2009ko ekainean jada 2 enpresak lortu dute hiru sistemak ziurtapena (ISO 9001, ISO 14001 eta OHSAS 18001), 3 enpresak OHSAS 18001 ziurtapena, enpresa batek OHSAS 18001 eta beste bik ISO 9001, **Eraikal Bederatzi (2007-2009)** deialdiaren barruan. 2009ko ekainean, halaber, **Eraikal Hamar (2008-2010)** deialdiaren barruan, enpresa batek lortu du ISO 9001 eta OHSAS 18001 ziurtapena, hiruk lortu dute ISO 9001 eta batek OHSAS 18001.

Eraikal bezalako ekimenak eraginkorrak al dira Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresetan kalitatea, iraunkortasuna, segurtasuna eta berrikuntza sustatzeko?

Aexal: Bai, aipatutako arloetan kudeaketa-sistemen ezarpena egiten errazten duelako eta enpresei handitzen eta garatzen laguntzen dielako. Aitzitik, oso zaila egingo litzaieke.

Ave-Bie: Zalantzarik gabe. Sektoreko enpresek ondo ulertu dute lehiakorrago bihurtzeko lan handia egin behar dutela, eta are gehiago krisi garaioan; horrenbestez, **Eraikal** bezalako ekimenak beti dira ongi etorriak, diru laguntzak ematen dituztelako besteak beste. Hala ere, enpresak argi ikusi behar du ezarpena egiteko beharra eta egokitasuna, laguntza jaso ala ez.

Bestalde, iraunkortasuna eta segurtasuna garrantzi handiko kontzeptuak dira hondeaketa eta lurra mugitzeko lanen sektorean, eta *Ave-Bie*-ren aldetik zein enpresen aldetik ezinbestekoa da ingurumen-jarrera egokiak sustatzea eta gure langileen segurtasuna hobetzea.

Nola baloratzen dituzue Eraikal programaren hamar edizioak?

Aexal: Deialdi bakar batean parte hartu dugu, baina gure balorazioa ona da. Enpresa gehiagok parte hartu izan balu hobe, baina ezinezkoa izan da.

Ave-Bie: Hasteko, 2007tik gaur egunera arteko balorazio bat egin dezaket. Bi deialditan parte hartu da, eta azkenean duela gutxi izan da.

Zentzu horretan, benetan poztu nau azken edizioak izandako harrera bikainak. Lehen esan dudan moduan, hamai-ka enpresa izatetik hamazazpira iritsi gara. Horrek guztiak garbi uzten digu enpresek ondo ulertu dutela etorkizuna jokoan dutela; horrela, mota horretako ekimenak erronka horiei aurre egiteko aukera moduan ikusten dituzte.

Zer alderdi positibo azpimarratuko zenuke Eraikal-etik?

Aexal: Kudeaketa-sistema antolatu eta praktiko bat ezartzean, enpresetan ordura arte ezagutzen ez zuten diziplina bat lortzen da, eta, ondorioz, lehiakorrago bihurtzen dira eta enpresa-irudia hobetzen da, sektoreko beste enpresa batzuekin alderatuta.

Ave-Bie: Enpresei programan sartzeko ematen zaizkien erraztasunak azpimarratuko nituzke. Askotan oztopo izaten diren izapide burokratiko handirik egin gabe lortzen da programan sartzea. Hori dela eta, **Eraikal**-ek aukeratu duen formula formula egokia dela uste dut.

Beste alderdi positibo bat, lehen ere aipatu dudana, Etxebizitza Sailak eguneroko lanean sortutako zalantzak argi-tzeko erakutsi duen prestasuna da.

Zer alderdi hobe daiteke Eraikal-en?

Aexal: Orokorrean programa egokia dela uste dut, nahiz eta enpresa gehiagotara iritsi beharko zukeen, enpresaren tamaina edozein izanik.

Ave-Bie: Hiru hilean behin txostenak bidaltzeko formula egokia bada ere, enpresek denbora luzea itxaron behar izaten dute batzuetan diru laguntza jasotzeko. Adibidez, gerta daiteke enpresa batek ziurtapena urtarrilean lortzea, baina hurrengo txostena idatzi arte (apirilean) itxaron behar izatea dokumentazio guztia bidaltzeko. Behar bada egokia litzateke epeak laburtzeko formula bat lortzea.

Etorkizunera begira zer ekintza-lerro barne hartu beharko lituzke Eraikal-ek?

Aexal: Ez zait ezer bururatzen.

Ave-Bie: Eraikuntzaren sektoreari ez zaio behar bezalako arretarik ematen inbertsioa laguntzeko lerroei dagokienez; adibidez, ezin ditu eskuratu Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Inbertsioa Laguntzeko Laguntzen Programako laguntzak (AFI programa). Horregatik, ondo legoke **Eraikal**-ek laguntza-lerro bat ematea zentzu horretan, nahiz eta zaila den horrelako zerbait egitea, aurrekontua nabarmenki areagotu beharko litzatekeelako.

SUSTAPEN ETA ERAIKUNTZA ENPRESEN ELKARTEEN GALDEKETAK



Iñaki Urresti Laka, Ascobi-Bieba Bizkaiko etxegile sustatzaileen bazkunako gerentea. Ascobi-Bieba Bizkaiko sektoreko enpresa nagusiak barne hartzen dituen enpresa-elkarte bat da. Gaur egun 251 enpresa kide ditu.



José Antonio Arratibel Ascongi-tik. Ascongi 1977an sortu zen arloko elkarte bat da eta Gipuzkoako eraikuntza-enpresak eta antzekoak barne hartzen ditu. Era berean, Adeggi-Gipuzkoako enpresarien elkartearen barruan dago.



Enrique González Sal, Arabako eraikuntzako enpresarien batasuneko gerentea. Sea-Uneca 1977an sortu zen arloko elkarte bat da eta Arabako eraikuntza-enpresak eta antzekoak barne hartzen ditu. Era berean, Sea-Arabako enpresarien elkartearen barruan dago. Sea-Uneca elkarteak Arabako sektoreko enpresa garrantzitsuenak barne hartzen ditu. Gaur egun 160 enpresa elkartu ditu.

Zer proiektu aurkeztu duzu Eraikal-en deialdietan?

Ascobi: Ascobi **Eraikal** programaren deialdi guztietara aurkeztu da. Hasiera batean enpresa parte-hartzaileek ziurtapenak lortzeko lanekin erlazionatutako proiektuak aurkezten ziren, baina azken deialdietan Elkarteak berak zuzenean garatutako proiektuak aurkeztu dira: prebentzioari buruzkoak eta azpikontratazioari buruzkoak, adibidez.

Ascongi: Ascongi-k **Eraikal** programaren deialdi guztietan parte hartu du. Oro har, bi proiektu mota aurkeztu ditu: sektoreko enpresetan ziurtapenak lortzeko proiektuak eta eragile izenarekin ezagutzen diren proiektuak. Guztiak Gipuzkoako enpresen onurarako proiektuak izan dira.

Lehenengoan artean, ISO 9000, ISO 14000 eta OHSAS 18001 ezarpen ugari egiteaz gain, **Eraikal Bost (2002-2004)** deialdian proiektu bat garatu genuen zortzi enpresarekin, EFQM ereduaren esparruaren barruan, eta **Eraikal Hamar (2008-2010)** deialdian EFQM ereduaren inguruko sentsibilizazio-proiektu bat aurkeztu da. Bestalde, eraikuntza-enprekin batera hainbat proiektu aurkeztu ditugu: *Construcciones Sukia* enpresarekin, bi enpresa-talderi lagundu zitzaizen **Eraikal**-en bi deialditan, ISO 900 ezarpena egiten; eta *Construcciones Antzibar* enpresarekin, taldeko hiru enpresarekin batera EFQM proiektu bat egiten. Bestalde, pertsona fisikoen datuen informazioa kudeatzeko sistemen ezarpen bat egin zen, 9 enpresak zituzten kalitate-sistemetan integratuta.

Bigarren jarduera motaren barruan, aipamen berezia merezi dute honako proiektu hauek: eraikuntzaren sektorean ezagupenaren kudeaketa ezartzea; lege-bilatzailea eraikuntzaren sektorerako; aginte-aula; eraikuntzako sustapen-enpresa baten simulazioko modelo dinamikoa; eraikuntzako enpresa txiki eta ertain baterako iraunkortasunaren eredu-memoria bat garatzea; Benchmarking, eraikuntzaren sektoreko adierazleen bankua.

Sea-Uneca: **Eraikal** programaren aurkezpena egin zenetik, *Uneca*-k hainbat ziurtapen-proiektu aurkeztu ditu: ISO 9001 arauaren arabera ziurtapena lortzeko, kalitate-sistemak 2000ko arauaren baldintzetara egokitzeko eta ISO 14001 eta OHSAS 18001 arauen arabera ziurtapena lortzeko. Gainera, prestakuntza-lantegiak antolatu ditu kalitatea, ingurumena eta laneko segurtasuna modu integratuan kudeatzeko ereduari buruz, eta eraikuntzaren sektorean hondakinak kudeatzeko gida bat idatzi du.

Zer arrazoi eduki duzu Eraikal-en deialdietan parte hartu ala ez erabakitzeke?

Ascobi: Enpresa-elkarteek kalitatearen kudeaketak duen garrantzia sustatu eta ezagutzera eman behar dugu eta, ondorioz, oso garrantzitsua da **Eraikal** bezalako laguntza-programetan parte hartzea. Benetan programa eraginkorak dira enpresak kalitatearen ziurtapena lortzeko bidean jartzeko.

Ascongi: *Ascongi*-k garbi ikusten du administrazioak eta bere erakundeak funtsezkoak direla, oro har enpresen eta bereziki eraikuntzako enpresen lehiakortasuna sustatzeko eta garatzeko sinergiak sortu ahal izateko. **Eraikal** bezalako programetan parte hartzen da, deialdi horiek dakartzaten alderdi onuragarria guztiak aprobetxatzeko.

Sea-Uneca: Enpresei enpresa-kudeaketarako sistema desberdinen ezarpenean lagundu nahi zaie, eta ingurumen-jardunbide egokiak zabaldu nahi dira, eraikuntzaren sektoreko hondakinen kudeaketari buruzko Gida erabiliz. Era berean, enpresei informazioa eta prestakuntza eman nahi zaie kudeaketa-sistemak bateratzeko aukerari buruz.

Zer funtzio eragile betetzen duzue Eraikal proiektuen barruan zuen enpresen ikuspegitik?

Ascobi: Deialdiak ahalik eta gehien zabaltzeaz eta ezagutzera emateaz gain eta laguntza hauek enpresetarako oso lagungarriak eta aukera bikaina direla helarazteaz gain, ziurtapenak lehiakortasuna indartzeko faktore gisa aurkezten ditugu, eraikuntzaren merkatuan duten garrantzia azpimarratuz.

Ascongi: *Ascongi* enpresa-elkartearen xedea bere kideen enpresa-interesak defendatzea da eta, hortaz, eragile gisa jarduten du mota orotako ekimen, ezarpen, prestakuntza, eta abarretan, gure enpresa elkartuetan bere xedea zabalduz. Horregatik, *Ascongi*-k sektorea zuzenean zein zeharka lagun dezaketen mugimendu guztien gidari da eta, ondorioz, ekoizpen-sistemarena orokorrean.

Sea-Uneca: Etxebizitza Sailak **Eraikal** programaren bitartez enpresei ematen dizkien laguntzei buruzko informazioa eman da, diru laguntzen izapideak bideratu dira eta eragile gisa proiektuen jarraipena egin da.

Nola deskribatuko zenuke Eraikal programetan izandako esperientzia?

Ascobi: Oso positiboa izan da gure esperientzia. Lan egiteko modua egokia da eta programan parte hartzen duten enpresen beharretara egokitzen da.

Ascongi: Esperientzia bikaina izan dugu urtero. Pixkanaka sistema hobetzea lortu dugu eta Etxebizitza Sailarekin harreman hurbilak eduki ditugu.

Elkarteko kideek oso ezaguna dute programa, beraz, konfiantza dute berarengan, eta lortutako datuek garbi erakusten dute parte-hartzea altua izan dela.

Sea-Uneca: Deialdi guztiak batera hartuta emaitza oso onak lortu dira, bai enpresen parte-hartzeari erreparatuz, bai enpresek lortutako emaitzei erreparatuz. Aipatzea merezi du, halaber, Etxebizitza Sailaren hurbiltasunak eta sektorearekiko erakutsitako lankidetzak eta inplikazio handiak.

Zer emaitza lortu duzu agente eragile gisa? Zer emaitza lortu dituzte zure elkargokideek?

Ascobi: Agente eragile gisa, programa kudeatzean zuzenean ezagutu ahal izan dugu Bizkaiko eraikuntzaren sektoreko kalitatea, iraunkortasuna, berrikuntza eta prebentzioa kudeatzeko sistemen ziurtapenaren errealitatea eta egoera zein den. Gainera, programa sektore osora zabaldu dugu, parte-hartzea gure elkargokideetara mugatu gabe. Hala ere, azken horiek, *Ascobi*-tik duten hurbiltasuna dela eta, informazioaren onuradun izan direla aipatu behar dugu.

2008ko abendura arte, eta **Eraikal** ekimena martxan jarri zenetik, ehun eta berrogeita hamar enpresak baino gehiagok lortu dute, *Ascobi-Bieba*-ren bitartez, gutxienez kudeaketa-sistema baten ezarpena egitea.

Ascongi: Agente eragile gisa, **Eraikal** ekarpen berriak bilatzeko programa motibatzaile bat dela esan dezakegu: kalitatearen zein produktu berrien berrikuntzan, horiek kudeatzeko orientazio berriak eta tresna praktikoak bilatzera bultzatzen ditu enpresak.

Elkargokideei dagokienez, ez dugu inolako zalantzarik zenbaiten kasuan kudeaketa-ahalmena eta kudeaketa-eredua hobetzea lortu dela programen bitartez. Zentzu horretan, adibide azpimarragarrienen artean, honakoa aipa daiteke: Gipuzkoa urteetan lider izan da Espainiako eraikuntzaren sektorean ISO ziurtapenak lortzeari dagokionez.

Sea-Uneca: Parte hartu duten enpresak izan dira programaren onuradun nagusiak: enpresako kudeaketa-sistema hobetzea lortu dute eta, ondorioz, lehiakorrako bihurtu dira. *Uneca*-ri dagokionez, programari esker maileguen zerbitzuak nabarmenki hobetu dira eta hirurogei enpresa kidek baino gehiagok atera diote etekina egoerari.

Eraikal bezalako ekimenak eraginkorrak al dira Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresetan kalitatea, iraunkortasuna, segurtasuna eta berrikuntza sustatzeko?

Ascobi: Ez dut zalantzarik: ematen diren laguntzei esker, funtzionatzeko dinamika berri batean sartzeko pizgarri dira horrelako ekimenak.

Ascongí: **Eraikal** gisako programei esker lortzen da etengabeko hobekuntzarako lana sustatzea eta indartzea. Izan ere, eguneroko lanak ez liguke hazteko aukerak ikusten utziko, eta aukera horiek dira, hain zuzen ere, erakundeek sustatu beharrekoak.

Sea-Uneca: Jakina, programa honen esparruan garatutako ekintza guztiei esker kalitatea sustatu da, ingurumenarekiko errespetua indartu da eta, batez ere, lantokietako segurtasun-baldintzak hobetzeko eta lan-istripuen ondorioen larritasuna arintzeko balio izan dutela uste dugu.

Nola baloratzen dituzue Eraikal programaren hamar edizioak?

Ascobi: Programa positiboa dela uste dut. Dagoeneko hamar deialdi egin badira ere, lan handia dago egiteke esparru honetan.

Nire ustez, oker gabilta jada ziurtapenak lortzeko dinamikan sartu ez diren enpresak inoiz sartuko ez direla pentsatzen badugu. Sektore anitza da, egoera eta errealitate arras desberdinek osatua eta, ondorioz, lan handia dago oraindik egiteko kudeaketa-arloan. *Ascobi-Bieba*-n beti saiatu gara programa sustatzen, eta orain arte enpresek erantzun sendoa eta jarraitua eman digutela azpimarratu behar dugu.

Ascongí: Balorazioa oso positiboa da. Ezin dugu ahaztu, laurogeita bost ekintzatik gora egin dugula eta zenbait programatan sektoreko ehun enpresak baino gehiagok parte hartu dutela hedapen-ekintzetan.

Sea-Uneca: Hamar deialdi ondoren hirurogei enpresak baino gehiagok lortu dute kudeaketa-sistema eraginkorragoak ezartzea kalitatea, ingurumena eta, bereziki laneko segurtasuna eta osasuna bezalako esparruetan. Horri esker, enpresen lehiakortasuna hobetu da, beraz, gure Elkarteak balorazio oso positiboa egiten du **Eraikal** programaren gainean, eta Administrazioak eraikuntzaren sektorearekin egiten duen aurrekontu-ahalegin handia azpimarratu nahi du.

Zer alderdi positibo azpimarratuko zenuke Eraikal-etik?

Ascobi: Programak dagokion funtzio dinamizatzailea betetzen du eta modu erraz eta argian egiten du gainera.

Ascongí: Hobetzeko alderdien etengabeko bilaketa laguntzen du. Sektoreak izan ditzakeen beharrak ulertzen ditu.

Sea-Uneca: Enpresen parte-hartzea eta kudeaketa-sistemen ezarpenean emaitza bikainak lortzeagatik asetatasuna.

Zer alderdi hobe daiteke Eraikal-en?

Ascobi: Deialdietan jarraitzen diren epeak kontuan hartuta, izan daitezkeen bajak edo gerta daitezkeen hutsuneak enpresa berriekin betetzeko modua erraztu behar da, ahal den neurrian.

Ascongí: Faktore ekonomikoak (diru laguntza mugatuak) oztupoak jartzen ditu, batzuetan, proiektuak garatzeko, Elkartearen funtsak mugatuta baitaude.

Era berean, enpresa batek proiektu bat garatzean dituen barne-gastuak diruz lagundu beharko liratekeela uste dugu, enpresa horrek ez badu aholkularitza-enpresa baten kanpo-laguntzarik. Hortaz, diruz lagundu beharko lirateke barne-lana zein azpikontratazioa.

Ez dugu uste egokia denik agente sustatzaileek kobratu behar duten laguntzaren zatia, euren proiektuetan parte hartzen duten enpresek dagozkien helburuak lortzearen mende egotea. *Ascongi*-ren ustez, gure enpresek ziurtape-na lortu ala ez lortu, kudeaketa-lanak bete egiten ditugu eta bitartekari eta sustatzaile garen neurrian sortzen diren kudeaketa-gastuak kobratu beharko genituzke.

Sea-Uneca:

Etorkizunera begira zer ekintza-lerro barne hartu beharko lituzke Eraikal-ek?

Ascobi: **Eraikal**-ek barne hartuko dituen jarduera-lerroak alde batera utzita, funtsezkoa deritzot programaren jatorrizko lerroei eusteari, izan ere, neurri handi batean, lerro horiei esker lortuko da etorkizunean arrakasta.

Ascongi: Jarduera-esparru berriak ezagutu beharko lirateke: enpresa-irudiaren hobekuntza, istripu-tasari buruzko esparruko azterketak eta hobekuntza-ekintzak, gai interesgarriei buruzko jardunaldiak: merkatu-nitxo berriak, domotika, eraikuntza-elementu berriak, eta abar.

Sea-Uneca: Halaber, laguntzak eman beharko lirateke iraunkortasun-memoriak lantzeko eta eraikuntza-hondakinen kudeaketarako, eta laguntzak eman beharko lirateke enpresaren gizarte-erantzukizunari dagozkion aurre-tiazko diagnostikoak lantzeko eta ezarpena egiteko.


ELEKTRIZITATE, TELEKOMUNIKAZIO, ITURGINTZA, GAS, BEROKUNTZA, GIROTZE ETA ANTZEKOEN INSTALAZIOAK EGITEAZ ETA HORIEN MANTENTZEAZ ARDURATZEN DIREN ENPRESEN ELKARTEEN GALDEKETAK



Joseba Andoni Iturbe Murguialday, Aeieb-eko idazkari exekutiboa. Aeieb-Bizkaiko instalatzaile elektriko eta telekomunikazio enpresa elkarte berrehun enpresa elkartuk osatzen dute. Guztira bi mila langiletik gora barne hartzen ditu. Goi-tentsioko, tentsio ertaineko eta behe-tentsioko instalazio elektrikoak egitea da enpresa horien jardueraren ardatza, bai eta telekomunikazioak eta domotika ere, bizitegi-eraikuntzan zein industria-sektorean eta beste hainbatetan. Elkartearen helburu eta xede nagusiak erakunde ofizialen eta konpainia elektrikoaren aurrean sektoreko enpresa guztien interesak defendatzea eta ordezkatzeta dira. Halaber, enpresa horien jardura profesionalak garatzeko beharrezkoak diren zerbitzuak eskaintzen ditu.



Blanca Rosa Mateo, Afogasca-ko gerentea. Afogasca irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da eta 2009tik bere kide dira Arabako iturgintza, gas, berokuntza eta girotzeko instalazioen eta antzekoen sektoreko enpresen % 90. 1977an sortu zen elkarte. Afogasca probintzia-mailako organo bat da, eta bere jardura nagusia enpresa eta profesional elkartuen interesak ordezkatzeta, kudeatzea, sustatzea eta defendatzea da.



Roberto Cerdá, Afonvi-ko kalitate-arduraduna. Afonvi, Bizkaiko iturgintza, saneamendu, gas, berokuntza eta antzekoen enpresen elkarte da. Gure jardueraren ardatza enpresa elkartuen beharrei erantzutean datza. Zentzu horretan, dagokigun lana garatzeko funtsezkoa da prestakuntza eta informazio azkarra eta eraginkorra lortzea. Gure jardura-eremua nahiko zabala da eta alderdi tekniko eta lege- eta araudi-mailako alderdiez gain, enpresa-kudeaketarekin eta informazio orokorrarekin erlazionatutako alderdiak estaltzen ditugu.



Ignacio Salcedo Ausín, Amicyf-Euskadi-ko zuzendaria. Amicyf-Euskadi-ren sorrerako helburua, Euskadiko hotz- eta bero-mantentzaileen sektoreko enpresei orientazio-zerbitzu berritzaile bat eskaintzea izan zen.

Amicyf-Euskadi-k helburu nagusizat du enpresarien, langileen eta, azken finean, eraikinen girotze-instalazioen sektorearekin erlazionatutako pertsona guztien interesak defendatzea.

Amicyf-Euskadi elkartearen hogeita bost urte daramatzagu hainbat esparrutan lanean: langileen prestakuntza, enpresetarako aholkularitza tekniko eta beste eragile ekonomiko batzuekin (aseguru-entitateak, aholkularitza-enpresak, eta abar) lankidetzeta-hitzarmenak egitea; betiere, gure elkarteko kide diren enpresen alde.

Guztiarekin, gure enpresa elkartuei garatzen duten jardura, hotz- eta bero-instalazioen eta mantentzearen jardura, hain zuzen ere, hobetzeko eta are gehiago profesionalizatzeko lagunduko dien zerbitzu bat izatera iritsi nahi dugu.



Iñigo Fernández Picazari, Instagi-ko kalitate eta berrikuntza-arduraduna. Instagi Gipuzkoako instalatzaile eta mantentzaileen enpresen elkarte da. Zortziehun eta hogeita hamar enpresa elkartu ditu eta guztiek batera hiru mila langileri ematen diete enplegu zuzena. Elkartearen xede generikoari helduta, bere kideen interes profesional, ekonomiko eta sozialak defendatzea du xedetzat, eta lanbidearen izen ona sustatzeko, elkargokideen artean harmonia eta adiskidetasuna lortzeko eta elkargokideen maila profesionala eta giza alderdia areagotzeko ekimenak martxan jartzeko. Enpresa elkartekideen interesak defendatzeaz gain, horien jardura indartzeko bideak errazten ditu Instagi-k.

Zer proiektu aurkeztu duzu Eraikal-en deialdietan?

Aeieb: **Aeieb-etik Eraikal Bost (2002-2004), Eraikal Zortzi (2006-2008), Eraikal Bederatzi (2007-2009) eta Eraikal Hamar (2008-2010)** deialdietan parte hartu dugu. Honakoa aurkeztutako proiektuen laburpena:

- **Eraikal Bost:** Enpresa batek ISO 14001 eta bi enpresak ISO 9001;
- **Eraikal Zortzi:** Enpresa batek ISO 9001; enpresa batek ISO 9001 eta ISO14001; eta eraikuntzaren kode teknikoari buruzko jardunaldi bat.
- **Eraikal Bederatzi:** Enpresa batek ISO 9001; laneko arriskuen prebentzioari buruzko jardunaldi bat eta langile autonomoaren estatutuari buruzko jardunaldi bat.
- **Eraikal Hamar:** Lau enpresak ISO 9001; enpresa batek ISO 14001; enpresa batek OHSAS 18001; bi enpresak ISO 9001 eta OHSAS 18001; enpresa batek ISO 9001 eta UNE 150301; enpresa batek ISO 9001, ISO 14001 eta OHSAS 18001; eta enpresa batek Zilarrezko Q-a.

Afogasca: Erakunde "eragile" gisa bi proiektu aurkeztu ditugu estreinakoz, **Eraikal-en azken deialdian, Eraikal Hamar (2008-2010)** deialdian hain zuzen ere. Proiektu bat gure sektoreko enpresetan K-21 kalitate-sistema ezartzeko da, eta bigarrenak gure enpresen kostuak kalkulatzeko hobekuntza-tresna bat ezartzea bilatzen du.

Afonvi: **Afonvi-k Eraikal** programan parte hartzen du seigarren deialditik (2004-2006). **Afonvi-k** aurkeztutako proiektuek helburu komun bat eduki dute beti: elkarteko enpresak kalitatearen, laneko arriskuen prebentzioaren eta ingurumenaren ziurtapenen bidean jartzea.

Zentzu horretan, gure proiektu gehienek mikro enpresak izan dituzte xedetzat, horien kudeaketa-gaitasuna areagotzeko eta euren beharretarako egokiak diren kudeaketa-tresnak prestatzeko. Garatu ditugun ekintzak kalitatea lortzeko tresnen eta sistemen garapena izan dute ardatz, funtsean; eta, xede horrekin, mikro enpresetarako K-21 kalitate-sistemaren inguruko prestakuntza-ikastaroak eta ezarpenak egin dira. Jakina, ezin ditugu ahaztu kalitatea lortzeko bideari heldu dioten enpresak, eta horiei ere ISO 9001 eta ISO 14001 sistemen ezarpenean lagundu diegu.

Afonvi-k berak, gainera, etekina atera dio elkarte gisa **Eraikal** programari. **Eraikal Zortzi (2006-2008)** deialdian EFQM ereduaren araberako kudeaketa-sistema bat garatzeko proiektu bat aurkeztu dugu **Afonvi-n**. Proiektu horrek eman ditu lehen fruituak jada, eta horren erakusle da 2008an lortutako Kalitatearekiko Konpromisoaren Euskalit Diploma.

Amicyf: Sarreran aipatu dugun gure filosofiaren ildotik, 2007an parte hartu genuen lehen aldiz **Eraikal programan, Eraikal Bederatzi (2007-2009)** deialdian hain zuzen ere. Edizio horretan elkarteko hiru enpresak parte hartu zuten, ISO 9001 ziurtapena lortzeko. Ekimen horretan, halaber, kalkulu-programa bat garatzeko proiektu bat aurkeztu genuen. Helburua zen berokuntza eta aire girotuko instalazioen diseinu-memoriak egitea. Proiektu horretan buru belarri lan egin dugu azken bi urteetan, eta 2009ko udan lanak amaituta edukitzea espero dugu.

Gaur egun **Eraikal Hamar (2008-2010)** programan murgilduta gaude. Elkarteko zortzi enpresa saiatuko dira ISO 9001, ISO 14001 eta OSHAS 18001 sistemen ziurtapenak lortzen (bat, bi ala hiruak). **Amicyf-ren** ikuspegitik, enpresa horiek guztiak barne hartzen dituen elkarte gisa, horrelako parte-hartzea lortzea arrakasta handia izan da, ez hainbeste enpresa parte-hartzaileen kopuruagatik, eta bai zenbait ekintzek erakutsitako kalitateagatik.

Instagi: **Instagi Eraikal Sei (2003-2005)** deialdian hasi zen **Eraikal** programan parte hartzen. Urte hartatik aurrera, **Eraikal** programaren deialdi guztietan parte hartu du, eta gaur egun **Eraikal Hamar (2008-2010)** deialdian ari da parte hartzen.

Nagusiki kalitate-sistemen kudeaketarekin lotutako proiektuak aurkezten ditugu (ISO 9001 kalitate-arauaren eta K-21 kalitate-sistemaren ezarpena eta "Erabateko Kalitaterantz"), eta etengabeko hobekuntzarekin erlazioan ututakoak (prezioa/orduko kalkulua eta "5S"en ezarpenak), edo hedapen-ekintzak antolatzen ditugu, elkargokideei lege-mailako aldaketen berri emanez, edo indarrean sartzen den araudiaren eta hainbat gai interesgarriren berri emanez. Modu berean, **Instagi-k** segurtasunaren eta laneko arriskuen prebentzioaren esparruko prestakuntza-proiektuak aurkezten ditu.

Zer arrazoi eduki duzu Eraikal-en deialdietan parte hartu ala ez erabakitzeke?

Aeieb: Elkartean garbi ikusi genuen gure enpresei enpresa-kudeaketa hobetzen lagundu behar geniela (kalitatea, ingurumena, laneko arriskuak, eta abar) eta, zentzu horretan, **Eraikal** programa oso garrantzitsua da, ematen dituen diru laguntzei esker bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresa txikiek kanpoko aholkularitza-enpresen laguntza lortzen dutelako kudeaketa-sistemen ezarpena egiteko. Horrelako proiektu bat garatu ala ez erabakitzeke orduan, diru laguntzak jasoko direla jakitea erabakigarria izan daiteke. Gainera, bezeroek enpresa bat kontratatzeke orduan gero eta gehiago hartzen dute kontuan enpresak kudeaketa-sistematik ote duen.

Afogasca: Aurreko edizioetan beste erakunde batzuk sustatutako proiektuetan parte hartu dugu. Oraingoan, gure proiektuak aurkeztea erabaki dugu, Arabako enpresa elkartuen parte-hartzea indartzeko asmoz.

Afonvi: **Eraikal** ezagutu genuenetik ari gara aktiboki parte hartzen. Gure ustez, enpresa-elkarte bat garen neurrian, **Eraikal** programa aukera bikaina da gure lerro estrategiko bat zabalteko: kalitate-eredu estandarizatu eta ziurtatuen arabera kudeaketa egitea, hain zuzen ere.

Zentzu horretan, askotan erabakigarriak dira **Eraikal**-en deialdietan enpresa parte-hartzaileen eskura jartzen diren diru laguntzak. Ez dugu zalantzarik, horrelako proiektuetan parte hartzea enpresen egonkortasuna, ingurumen-iraukortasuna eta Euskadiko hazkunde ekonomikoa lortzeko funtsezko faktoreetako bat dela esatean.

Amicyf: Berandu sartu gara programan; berandu ezagutu dugu, baina ezagutu bezain laster sartu gara. Eta nahiago nuke lehenago parte hartu izan bagenu, izan ere, izan dugun esperientziak garbi erakutsi ditu programa oso baliagarria dela, batez ere gurea bezalako elkarteetan edo antzekoetan lantzeko.

Instagi: Elkarteko enpresen artean etengabeko hobekuntza eta berrikuntza sustatzeko helburua betetzea da **Instagi-k Eraikal** programan parte hartzeko duen arrazoi nagusia.

Zentzu horretan, enpresei euren kudeaketa-sistemak hobetzen laguntzeko modu bikaina da **Eraikal**. Programak bezeroei eskaintzen zaizkien zerbitzua garatzera eta hobetzera "gonbidatzen" ditu enpresak. Proiektuak diruz laguntzen direnez, elkargokideak errazago animatzen dira parte hartzera eta aukera gehiago dute kudeaketa-sistemak edo antolamendua hobetzeko sistemak ezartzeko. Diru laguntzarik gabe, sektoreko espresa txikiek zailtasun handiak edukiko lituzkete horrelako proiektuak burutzeko.

Zer funtzio eragile betetzen duzue Eraikal proiektuen barruan zuen enpresen ikuspegitik?

Aeieb: Agente eragile gisa bete dugun lana, horrelako programek dituzten faktore positiboaren kontzientzia izan da hasiera batean, eta, horretarako, zirkularrak eta mezu elektronikoak bidali eta jardunaldiak antolatu dira.

Programa hasi ondoren, sistemen eta ziurtapenen ezarpenaren jarraipena egiten dugu.

Afogasca: **Eraikal Hamar (2009-2011)** deialdiaren barruan, K-21 proiektuari helduta, helburua da sektoreko sei enpresak K-21 kalitatea kudeatzeko eredu ezartzea eta ziurtatzea. Beste proiektuan, berriz, enpresako kostuak kalkulatzeko tresna baten ezarpena lortu nahi da. Hamar enpresa koordinatu beharko dira, kostuak kalkulatzeko metodologia landu eta tresna informatiko baten ezarpena egiteko.

Afonvi: *Afonvi* zeregin oso garrantzitsu baten aurrean dago: Hasteko, gurea da enpresa kideei aipatutako ekimentera parte hartu ahal izateko informazio zehatza emateko ardura. Horretarako, bide anitz erabiltzen ditugu: zirkularrak, web-orria, aldizkaria eta informazio zuzena.

Afonvi-rentzat bereziki garrantzitsuak diren zenbait proiektuan, are garrantzitsuagoa bihurtzen da gure funtzio eragilea. Kudeaketa-sistemak eta horien ezaugarriak aurkeztu ditugu, eta horretan dihardugu, eta sistema horiek ezartzen dituzten enpresek lortzen dituzten etekinak azpimarratzen ditugu.

Aipatzea merezi du, halaber, gure elkarteko kide diren enpresen artean mikro enpresetarako kudeaketa-sistemak ezagutzera emateko egiten dugun ahalegin handiak. *Afonvi*-k K-21 kudeaketa-sistemaren aldeko apustua egin du, kalitate-irizpideak oinarrian hartuta mikro enpresak kudeaketara hurbiltzeko lehen urratsa dela uste baitugu. Denbora-tarte labur batean ikusten dira emaitzak eta barne-kostua nahiko baxua da. Proiektu honetan sistema hau gure elkargokideen artean ezagutzera eman nahi dugu eta, era berean, proiektuan erabat murgilduta eta nahastuta gaudela azpimarratu nahi dugu. Alde batetik, Bizkaiko lurralde historikoan sistema zabalteko lan egingo dugu

eta, bestetik, K-21 kudeaketa-sistema 2. maila ezartzen ari diren enpresei lagunduko diegu eta beraiekin elkarlanean jarraituko dugu.

Amicyf: Elkarreak elementu eragile gisa bete duen lanari esker, programan parte hartu duten enpresen kezka zuzenean ezagutu ahal izan ditugu eta, modu horretan, sektoreak dituen benetako beharrak argiago ikusi ditugu.

Instagi: *Instagi*-k elkarte eragile gisa bete duen lana irekita dauden proiektuen jarraipena egitean datza. Hiru hilean behin proiektu bakoitzaren egoera aztertzen dugu, eta aholkularitza-enpresekin edo proiektuen ardura duten pertsonekin harremanetan jartzen gara, proiektuaren garapena ikusteko eta gerta daitezkeen desbideratzeak antzemateko. Modu berean, enpresa parte-hartzaileen fakturak eta hainbat agiri jasotzen ditugu, Eusko Jaurlaritzari hiru hilean behin bidaltzen diogun txostena osatzeko. Bestalde, **Eraikal** programako proiektuen berri ematen du *Instagi*-k, "FAVI Informa" eta "Instalargi" sektoreko aldizkarietan edo El Diario Vasco egunkarian, hilean behin argitaratzen duen orrian ("INSTAGI Informa"). Modu berean, zirkular bat banatzen dugu eta hitzaldi bat antolatu, **Eraikal**-en proiektuak eta ematen diren diru laguntzak azaltzeko. Amaitzeko, proiektu bat amaitzean, lehen aipatutako iturri guztietan argitara ematen dugu, zer proiektu garatu diren, zer enpresak parte hartu duten, nola garatu den, eta abarri buruzko azalpenak emanez.

Eta **Eraikal** programatik abiatuta, *Instagi*-k kalitate-eragilearen irudia sortu du. Kalitate-eragilearen ardura da, ISO 9001 eta K-21 kalitate-sistemak ezartzeko proiektuetan parte hartzen duten enpresa txikiei, nahi dutenei, kalitate-mailako aholkuak ematea. Arrakasta handia lortu da aipatutako irudiarekin eta, horrela, proiektua amaituta ere enpresek bere zerbitzuak eskatzen dituzte sistemen mantentzea egiteko.

Nola deskribatuko zenuke Eraikal programetan izandako esperientzia?

Aeieb: Hasiera batean, gure sektoreko enpresa txikienek ez zuten positibotzat jotzen horrelako programetan parte hartzea. Hala ere, denborarekin konturatu dira enpresako kudeaketa hobetzeko aukera bikaina dela, bai eta gainerrako lehiakideen artean nabarmentzeko ere.

Programa erraz kudeatzen da berez, eta nahiz eta arazo txikiak sortu, Etxebizitza Sailak berehala konpontzen ditu, eta horregatik eskerrak eman behar dizkiogu, guk geuk eta enpresa parte-hartzaileek, erakusten duen jarreragatik.

Afogasca: Bi proiektuak **Eraikal Hamar (2008-2010)** deialdian aurkeztu ditugu, gure elkarteko kide diren enpresek interes gero eta handiagoa baitute xede diren bi lerroen gainean. Lehen aldiz aurre egin beharko diegu programan parte hartzeko izapidetze-lan handiari eta eskakizun burokratikoiei, baina, hala ere, Etxebizitza Sailaren laguntza izango dugula badakigu eta, beraz, agiri guztiak ezarritako baldintzen arabera aurkeztu ahal izango ditugu.

Afonvi: **Eraikal**-en parte hartzea esperientzia oso positibotzat jotzen du *Afonvi*-k. Lehenik eta behin, gure politikan funtsezkoa den alderdi bat garatzeko aukera gisa ikusten dugulako: elkargoko kide diren enpresak kalitatearen kudeaketara hurbiltzea, hain zuzen ere.

Gure ustez, kalitatearen kudeaketa da enpresa-iraunkortasunera iristeko biderik seguruena. Enpresek ekarpen ugari egiten dituzte arlo anitzetan. Kalitate-sistema baten ezarpena egitean, planteamendu estrategiko sakonak lortzen dira askotan eta, horiek oinarrian hartuta, enpresek euren bezeroen beharretara egokitzen eta egokien zaizkien merkatuetara orientatzen asmatzen dute. Hori dela eta, sistemen etekinak azpimarratu nahi ditugu, eta gure enpresa elkargokideen eskura jartzen dugu beharrezkoa duten informazio guztia.

Elkargoek bitartekaritza-lanak betetzen ditugu eta, batzuetan, egoera zailak sortzen dira. Hasteko, enpresek ez dituzte ezagutzen diruz lagun daitezkeen proiektuak eta bete beharreko eskakizunak. Bigarrenik, askotan elkargoek ez dugu lortzen proiektuak garatzeko agente aktiboak izatea eta zaila egiten zaigu proiektuen gidaritza eramatea, enpresen mende egoten baikara.

Edozein modutan, orain arte jarri zaizkigun erraztasunak azpimarratu behar direla uste dugu. Gure kasuan, zalan-tzak izan ditugu gai puntual batzuk konpontzeko, eta berehala eta modu eraginkorrean lagundu zaigu beti. Horrez gain, aipatzekoa da Etxebizitza Sailak egiten duen proiektuen jarraipen etengabekoa, bai eta bere teknikariek lan egiteko erakutsitako "prestutasuna" ere.

Amicyf: **Eraikal**-en berriki izan dugun esperientzia oso positiboki balora dezakegu: programa gainbegiratzeko duten teknikariek emandako laguntza eta elkargokideek, behin programaren funtzionamendua ezagutu eta gero, emandako erantzuna oso positiboak izan dira.

Lehenago esan den moduan, bereziki azpimarratu nahi dugu Etxebizitza Sailaren hurbiltasuna, segurtasuna ematen baitie programan parte hartzen duten enpresei.

Instagi: **Eraikal**-en programaren barruko alderdi azpimarragarrien artean, Etxebizitza Sailak egiten duen kudeaketa ona aipatu behar da. Proiektu batean enpresa motari, aurkeztu beharreko fakturei, eta abar buruzko zalantzak sortzen diren guztietan, Sailak beharrezkoa dugun informazioa ematen digu, telefonoz edo email bidez, ahalik eta azkarren eta modurik eraginkorrenean. Positiboki baloratzen dugu Sailak **Eraikal** programako proiektu guztien kontrola egitea, aurkeztu edo aipatu beharreko zerbait ahazten badugu, berak "salatzen" duelako.

Etxebizitza Saila **Eraikal** programaren inguruan ditugun kexa, iradokizun edo aldaketa guztiak entzuteko prest egon da beti. Duela gutxi *Instagi* Etxebizitza Sailarekin bildu da, aurkeztutako proiektu batean egindako aldaketak azaltzeko, eta ez du eragozpenik jarri bileraren hitzordua adosteko eta aldaketa-proposamenak entzuteko.

Zer emaitza lortu duzu agente eragile gisa? Zer emaitza lortu dituzte zure elkargokideek?

Aeieb: Hobera egin badaiteke ere, enpresak kudeatzeko prozesuen gainera kontzientziarioa eta prozesu horien etengabeko hobekuntza indartu dugula uste dugu elkartek eta gure enpresa elkartuek.

Afogasca:

Afonvi: **Eraikal**-en seigarren deialditi darama programara proiektuak aurkezten agente eragile gisa, eta proiektu gehien kasuan lortu da ezarritako helburuak betetzea. Logikoa den moduan, emaitza horiek elkartearen oinarrian eragin dute.

Eraikal programa hasi aurretik, oso enpresa gutxi ezagutzen zuten eraikuntzan aplikatutako kalitatea. Askok ez zekiten zer zen, edo eraikuntzan erabiltzen ziren gaien kalitatearekin bakarrik lotzen zuten. Gaur egun gauzak aldatu direla esan dezakegu, nahiz eta gure enpresa kide askok oraindik ez duten kalitatea kudeatzeko sistemarik; hala ere, ezagutzen dituzte eta sistema horien abantailen berri dute.

Jakina, bide luzea egin behar da oraindik, eta etengabe egin behar da lana, baina oinarriak finkatzea lortu da gutxienez.

Amicyf: Kudeaketa-sistemak ezartzeko programetan elkartek garbi ikusi eta baloratu ahal izan du, jargoi ekonomikoan mikro enpresa esaten zaien baina guretzat super enpresak diren erakundeen jabeek egin beharreko ahalegin izugarria, kudeaketa-ereduak ISO arauaren arabera sistemetara egokitu nahi dituztenean. Pozik gaude enpresa askok lortu dutelako ezarpena, gutxi gorabehera zenbait kasutan, eta enpresa horiek zituzten ereduak arauaren teoriako eredutik nahiko hurbil zeudela baieztatzeko balio izan digulako gainera. Horrelako lorpen batek enpresa horien "autoestimua" indartzeko balio izan du, izan ere, euren lana ezarpen-proiektuari ekin zitzaionean pentsatu baino hobeto betetzen zutela ikusi dute eta, ondorioz, kalitatearen aldeko apustua berretsi eta indartu dute.

Baina, baliteke, **Eraikal** programan izan dugun esperientziaren lorpen garrantzitsuena, gure lan-metodologiak gure elkartekideen artean izan duen eragin handia izatea. Gauzak horrela, mota honetako proiektuei ekiteko interesa zuten hainbat enpresak elkartera eta proiektuan nahastutako enpresetara jo dute zalantzak argitzera, eta zenbait **Eraikal Hamar (2008-2010)** deialdian parte hartzerantz animatu diren bitartean, beste zenbaitek aurreragoko edizioetan egingo dutela esan dute.

Instagi: Elkartek kudeaketa hobetu nahi duten enpresa elkartuen beharrei erantzuteko lan egiten du. **Eraikal** programaren eskutik, elkartekideari erraztasunak ematen zaizkio, bere beharren arabera kudeaketa-sistemen ezarpena egiteko.

Jarraian adierazi dira *Instagi*-k 2009ko martxora arte parte hartu duen **Eraikal**-etan lortutako emaitza kuantitatiboak: hogeita lau enpresak ISO 9001 ziurtapena lortu dute eta hamabik K-21; mila lauhun eta berrogeita hamabost lagunek parte hartu dute hedapen-jardunaldietan; berrehun eta hemeretzi lagunek jaso dute informazioa ("segurtasunari buruzko hitzaldiak") eta prestakuntza ("laneko arriskuen prebentzioari buruzko ikastaroak"). Guztiarekin, gure elkartekideek sektorean lan egiteko bete behar dituzten lege-baldintzak betetzea lortu

da. Arrakasta lortu duen beste proiektu bat “Kostuen kalkulua” etengabeko hobekuntzarako tresnaren ezarpena izan da. Hogei lagunek parte hartu dute, behar den bezala funtzionatzeko baliabideen optimizazioa lortzeko.

Sektoreko enpresen artean izandako harrera bikaina ikusita, ikastaro horien edizio berriak antolatzea aurreikusi dugu; gainera, jarduera berriak antolatuko ditugu mikro enpresen kudeaketaren eta berrikuntzaren esparruetan.

Amaitzeko, aipatzekoa da *Instagi*-n jarraitu dugun prestakuntza-ekintza metodologia eta eskaintako tutoretzen bidezko laguntza: enpresak talde txikitan multzokatu ditugu ezarpena eta ziurtapena egiteko. Horrela, ezarpen-prozesuek arrakasta lortzeko aukerak bermatzea lortu dugu eta, era berean, proiektuen jarraipen pertsonalizatua egiten dugu, eta enpresek gure laguntza eta babesba dute egin beharreko ibilbidean. Ziurtatutako enpresa askok eskatzen dituzte gure zerbitzuak, kanpoko kalitate-arduradun izateko.

Eraikal bezalako ekimenak eraginkorrak al dira Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresetan kalitatea, iraunkortasuna, segurtasuna eta berrikuntza sustatzeko?

Aieib: **Eraikal** moduko ekimenak funtsezkoak dira gure sektoreko enpresen etengabeko hobekuntzari beharrezkoa duen azken bulkada emateko.

Enpresa txikientzat garrantzi handikoak dira laguntzak, eta laguntzarik ezean, enpresa txiki asko ez litzateke animatuko programan parte hartzera.

Afogaasca: Ez dugu inolako zalantzarik, **Eraikal**-etik sustatutako ekimen eta ekintza guztiak funtsezkoak direla gurea bezalako sektore bateko enpresak berrikuntza, hobekuntza, kalitatea, eta abarren aldeko apustua egitera animatzeko.

Afonvi: Zalantza izpirik gabe. Estatistikek erakutsitako datu garbiak ikustea besterik ez dago. Azken urteetan hazkunde ikusgarria ezagutu du ziurtapen bat lortu duten eraikuntza-enpresen kopuruak.

Askotan hitz egin da ziurtapenen balioari buruz, eta zalantza jarri da batzuetan enpresa baten alderdi batzuen kudeaketa hobetzeko balio ote duten. Ezin dugu ahaztu ziurtapenak direla enpresa batek baldintza finko eta egiaztagarri batzuk betetzen dituela ziurtatzeko dugun metodo bakarra. Baldintza horiek betez, kudeaketari jarraikortasuna eta segurtasuna ematen zaio.

Amicyf: Bai noski; gainera, herri-administrazioak sustatzen duen programa bat izateak indartu egiten du. Obrako instalazio osagarrien sektorea (ura, gasa, berokuntza, elektrizitatea) garrantzi gutxiko sektore gisa eta kualifikazio baxuko langileak enplegatzen dituen sektore gisa ikusten da askotan kanpotik, baina hori ez dator bat sektorearen errealitatearekin.

Horrenbestez, enpresen kalitatearen eta berrikuntzaren aldeko apustua egiteak aipatutako ideia aldatzen lagunduko digu. Izan ere, **Eraikal** moduko esparru-programa bat egoteak nabarmenki errazten du mota orotako enpresetan horrelako politikak barne hartzea eta, ondorioz, gure sektorearen kalitatea, berrikuntza, iraunkortasuna eta segurtasuna sustatzen dira nabarmenki.

Instagi: Lehen aipatutako emaitzak ikusita, **Eraikal**-ek kudeaketa garatzen eta kalitate handiagoko zerbitzu bat eskaintzen lagundu die gure elkartekideei. **Eraikal** bezalako programek bezeroen asetasun-maila areagotzen eta eskaintzen zaien zerbitzuaren prestazioak hobetzen laguntzen dute. Lehiakortasuna areagotzean, lehiakor izateko soluzio egokiekin asmatu behar dute sektoreko enpresek. **Eraikal**-en parte hartuz, enpresek gainerako lehiakideengandik desberdintzeko modua bilatzen dute halaber.

Eraikal programan finantzatutako jardueri esker mikro enpresek kudeaketa hobetu ahal izan dute, kalitate-tresnen ezarpenaren eta ISO bezalako arauen ziurtapenen bitartez; horrela, laneko arriskuen prebentzioaren eta berrikuntzaren esparruan jarduera berriak abian jarri dira eta enpresei lege-baldintzetara egokitzen eta horiek betetzen lagundu zaie. Gainera, horrelako merkatu lehiakor batean, erabiltzaileei errazagoa egin zaie indarrean dagoen araudia betetzen duten enpresak eta betetzen ez dutenak bereiztea, eta bereizketa oso garrantzitsua da bizitegi-eraikuntzaren sektorean.

Nola baloratzen dituzue Eraikal programaren hamar edizioak?

Aieib: Deialdi bakoitzarekin are handiagoa da enpresek informazioa lortzeko duten interesa eta handiagoa da, halaber, enpresa parte-hartzaileen kopurua. Hasiera batean ISO 9001 zuten ardatz batez ere, eta gaur egun ingurumeneko eta laneko arriskuen sistemak bateratzea.

Afogasca:

Afonvi: **Eraikal**-en parte hartzen hasi ginenetik, *Afonvi*-tik noranzko batean lan egin dugu. Gure helburuak dira, enpresa elkartuak kalitatearen kudeaketara hurbiltzea eta jada kudeaketa-sistema ziurtatuak dituzten enpresak sendotzea eta sisteman sakontzea.

Helburu horiek betetzeko asmoz, alde batetik enpresatan ISO 9001, ISO 14001 eta oso bereziki K-21 kudeaketa-sistemen ezarpena egiteko proiektuak aurkeztu ditugu eta, bestetik, programan hasteko edo ezagupenak sakontzeko berariazko prestakuntza-ekintzak landu ditugu. Horiexek gure elkartekideen eskura jartzen ditugun tresnak, euren enpresen antolamendua eta baliabideen kudeaketa hobe dezaten; gainera, bezeroen beharretara hobeto egokitzen den zerbitzu bat eskaintzen da.

Amicyf: laz hasi ginen programan parte hartzen, beraz, ezinezkoa zaigu aurreko deialdien balorazioa egitea. Hala ere, sektorean lortu duen onarpena ikusita, balorazioa positiboa dela esan dezakegu.

Instagi: **Eraikal** programak harrera positiboa izan du gure elkartekideen artean. Horren adierazle argiena, urteak joan eta urteak etorri garatu ditugun proiektu eta ekintzen kopurua da. *Instagi*-n erabilgarri ditugun komunikazio-kanalak erabiltzen dira programa ezagutzera emateko, eta, denborarekin, enpresek programa ezagutzen dute. Hain zuzen ere, gaur egun *Instagi*-k bere gain hartu du proiektu berriak aurkezteko ardura, eta, era berean, elkartekide askok deitzen digute **Eraikal**-en programak ematen dituen diru laguntzei buruz galdezka. Hori guztia lortzeko, ezinbestekoa izan da **Eraikal** programa ezagutzera emateko Sailak erabili dituen komunikazio-kanalak, hala nola **Eraikal**-en aldizkaria, **Eraikal**-en web-orria eta *Instagi*-tik erabilitako hainbat informazio-bitarteko.

Sektoreak enpresen kudeaketa-sistemak hobetzeko bideari heldu dio. Gaur egun, sektoreko lehia izugarri gogortu da eta, horregatik, garrantzi handikoa da lehiakorrek izatea eta gainerakoen gainetik nabarmentzea, kudeaketa-sistemak ezarriz edo etengabeko hobekuntzarako tresnak erabiliz. Betiere, eskainitako zerbitzua hobetzea izango da helburua. Bestalde, enpresek informazio eguneratua eskuratzen dute, eta horrelako faktore bat enpresek behar duten balio berezi bat dela azpimarratu behar da. Sektorearen barruan segurtasunaren eta laneko arriskuen prebentzioaren esparruko prestakuntza eskaintzeko baldintza ezartzen du programak eta, horrela, elkartekideek prestakuntza jasotzeko aukera dute.

Etorkizunera begira, administrazioak lege-eskakizun gehiago ezarriko ditu eta, ondorioz, xede ditugun proiektuak, kudeaketa-sistemak ezartzeko proiektuak, laneko arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza, hedapen-ekintzak, eta abar, oso interesgarri eta garrantzitsu bihurtzen dira elkartekideen ikuspegitik. Era berean, gaur egun sektorean lehiakor izateko beharra azpimarratzen den moduan, berriazale izateko beharra hasi da azpimarratzen, gero eta gehiago. *Instagi*-k etorkizunean aurkeztuko dituen lerroak eta proiektuak esparru horretara zuzenduko dira.

Zer alderdi positibo azpimarratuko zenuke Eraikal-etik?

Aeieb: Diru laguntza azpimarratuko nuke nagusiki. Oso garrantzitsua da, enpresa txikientzat batez ere. Halaber, erakundeen laguntza eta programa hau hobeto kudeatzeko laguntza teknikoak jasotzeko aukera azpimarratu nahi ditugu.

Enpresak kontzientziatzeko balio du: enpresei garbi ulertarazi behar zaie administrazioak laguntzak ematen dituela eta hobekuntza-prozesuan lagunduko zaiela.

Oro har, euskal enpresa-ehunari hobetzen laguntzen zaio, eta etengabeko hobekuntzari, iraunkortasunari, berrikuntzari eta enpresako langileen segurtasunari garrantzi handiagoa eman behar zaiola azpimarratzen da enpresen artean.

Elkarteari dagokionez, programak barne hartzen dituen gaiei buruzko jardunaldiak eta prestakuntza antolatu eta eskaintzeko aukera dugu.

Afogasca: Enpresa txikiei eta azpiegitura mugatukoei proiektuak martxan jartzen laguntzen zaie; aitzitik, ezinezkoa izango litzaieke.

Afonvi: **Eraikal**-ek asmatu egin du elkarre eta enpresa eragileei egotzitako kanalizazio-funtzioarekin. Eraikuntzako enpresa gehienak dagokien ekoizpen-lana garatzea dute xede nagusizat, eta ezin dugu ahaztu gehienak mikro enpresak direla eta ez dutela baliabide gehiegi. Elkarrean arduratu da interesatzen zaien informazio guztia lortzea eta, bide batez, proiektua aurkezteko egin behar den lan burokratikoaren zati handi bat aurrezten zaie enpresei.

Gauzak horrela, askoz ere enpresa gehiagok jaso ditzakete laguntzak eta, batez ere, etekin handien atera dezakete-nek.

Amicyf: Mota honetako ekimenak antolatzeko beharraz konbentzituta gaude. Lehenik eta behin, enpresa txikiei ziurtapenen munduan sartzeko modua ahalbidetzen zaielako, betiere bidaia osoan laguntza edukiko dutelarik, Euskal Administra Publikoaren bitartez eta, kasu honetan, Etxebizitza Sailaren eta kasuan kasu elkartearen bitartez. Horrela, beraz, enpresari ugari animatzen da programan parte hartzera, eta erakundeen babesa dutela, berme handiagoarekin ekiten diote abentura berriari. Horrez gain, ezarpena beste kide batzuekin batera egiten denez, lortuko delako ideia indartu egiten da. Izandako esperientziak beste enpresa batzuetan eta Etxebizitza Sailean ezagutzera emateko aukera eskertzen dute era berean.

Instagi:

- Kudeaketa-sistemak ezartzean eta informazioa jasotzean enpresak lehiakorrago bihurtzen dira.
- Proiektuak garatzeagatik jasotzen diren laguntzak. Horrela, enpresek errazago indartu dezakete eguneroko kudeaketa.
- Saitetik modu egokian jarraitzen dira proiektuak eta berarekin harremanetan jartzeko erraztasunak ematen dira.

Zer alderdi hobe daiteke Eraikal-en?

Aeieb: Oro har, ez dut ezer negatiboa ikusten **Eraikal**-en. Hala ere, batzuetan argi utzi beharko litzateke enpresa-elkarteak garela erakunde eragileak eta, zenbait kasutan, aholkularitza-enpresek egiten duten merkataritza-eskaintza oldarkorregia izaten dela eta enpresariak ez dituztela gauzak garbi ikusten.

Gauza bat argi dago: **Eraikal**-en parte hartzen duten enpresek konbentzituta egin behar dute, enpresa-talde batean multzokatuta, eta ez dute beste norbaitek "derrigortuta" edo "konbentzituta" egin behar.

Afogasca: Proiektuen izapide burokratikoak eta jarraipena egiteko izapideak astunak eta luzeegiak direla uste dugu.

Afonvi: **Eraikal** programak diruz laguntzen ditu egiten diren proiektuak, baina ez, ordea, erakunde eragileek programa bera ezagutzera emateko eta programaren publizitatea egiteko garatzen dituzten jarduerak. Ondorioz, elkargoek edo elkarrekin euren gain hartu behar dituzte gastu horiek guztiak.

Amicyf:

Instagi:

- Proiektuak eta diru laguntzak izapidetzeko burokrazia gehiegizkoa da.
- Sailak ordainketak egiteko jarraitzen duen prozedurari dagokionez, interesgarria litzateke ordaindutako kopuruak ondo zehaztea, alegia, kopuru bakoitza zer proiektuari dagokion zehaztea.
- Itzuli beharreko kopuruak itzultzeko data zehatzak adierazi beharko lirateke.

Etorkizunera begira zer ekintza-lerro barne hartu beharko litzuke Eraikal-ek?

Aeieb: Etorkizunera begira, gaur egungo ildotik jarraitu beharko luke **Eraikal**-ek, eta gaur egun oraindik ISO 9001 ezarpena egiteke duten enpresa txikiak kontuan hartu. Eta, jakina, kontuan hartu behar ditu, halaber, ingurumen-iraunkortasuna, segurtasuna eta berrikuntza.

Enpresek garbi ulertu behar dute, aipatutako sistemen ezarpena egin nahi dutenek orain egin behar dutela, etorkizun hurbilean laguntzak alda daitezkeelako edo amaitu daitezkeelako. Hala ere, *Aeieb*-etik horrelakorik ez gertatzea espero dugu.

Afogasca: Gaur egungo lerroez gain, gure sektorean hainbat ikastaro garatu beharko lirateke etengabe: txartel profesionalak lortzeko edo iturgintza, gas, berokuntza, girotze eta eguzki-energiaren instalazioen segurtasuna eta kalitatea ziurtatzeko, adibidez. Egokitzapen ugari egin behar da, etengabe aldatzen baitira Europako araudia, nazio-mailakoa zein autonomikoa, eta abar.

Afonvi: Gure ustez, **Eraikal**-ek jarduera-lerro orokor egokiak jarraitzen ditu. Eraikuntzaren sektoreko enpresek nabarmenki hobetu dute kalitatearen eta berrikuntzaren kudeaketa eta ingurumen eta laneko arriskuen prebentzioarena, baina oraindik ez dute lortu industria-sektorearen parean jartzea. Horrez gain, ezin da ahaztu hobekuntza ez dela homogenea izan. Horrela, eraikuntza-enpresek denbora gutxian aurrerapen handia lortu duten bitartean, kasu askotan horien mende egiten dute aurrera instalazio-enpresek.

Amicyf: Etorkizun hurbilera begira, egindako apustua indartu beharko litzatekeela uste dut, gure sektorearen ikuspegitik gutxienez. Datozen urteetara begira, girotze-enpresek funtsezko bi erronkari egingo diote aurre: hotz- eta bero-instalazioen eraginkortasun energetikoa eta hozgarrien tratamendua girotzean.

Bi erronken kasuan, enpresek euren lehiakortasuna egiaztatu beharko dute bezeroaren eta administrazioaren aurrean. Izan ere, lehenengoak kezkatuta daude energia-fakturagatik, eta kanpoko energiaren mende daude bigarrenak. Eskuarki, ingurumenak kezkatzen ditu guztiak.

Kalitatezko enpresek bakarrik lortuko dute gainditzea eraikinen ziurtapen energetikoa (eraikin berri zein zaharrena), 2010erako aurreikusitako eraginkortasun energetikoaren ikuskapenak edo gas hozgarriei buruzko Europako araudiaren ezarpena (842 araudia).

Hiztegiak egiten duen kalitatearen definizioa honakoa da: “objektu baten berriarazko ezaugarri multzoa, espezie bereko gainerako objektuen berdina, hobea edo okerragoa egiten dutena”; horrenbestez, etorkizunean gainerakoen artean nabarmen geratu nahi duen enpresa orok dagokion jarduera-sektorean erreferente dela egiaztatu behar du eta, horretarako, kalitatea da aliaturik bikainena.

Esanak esan, *Amicyf-Euskadi*-n **Eraikal** moduko programek aurrera jarraitu behar dutela uste dugu. Ildo horretan, bizitegi-eraikuntzaren sektorean nahastutako agente bakoitzaren ardura izango da bere helburuak finkatzea eta ziurtatzeko arauak aukeratzea. Baina behatzaile oro ohartu da, eraikinen eraginkortasun energetikoa areagotzeko funtsezkoa dela instalazioen eta inguratzaile termikoaren diseinua hobetzea (arkitektura-estudioak eta ingeniari-tzak), lanak hobeto gauzatzea (instalazio-enpresak) eta horien mantentzea hobetzea (mantentze-lanen enpresak), betiere gure gizartea gero eta gehiago kezkatzen duen ingurumena ahaztu gabe.

Instagi:

- Kudeaketa-sistemak ezartzeko lerroak.
- Prestakuntza-ikastaroak.
- Enpresei informazioa emateko ekintzak.
- Sektorean berritzaileak izan daitezkeen proiektuak.
- Ezarpena eta ziurtapena laguntzeaz gain, jarraikortasuna saritu beharko litzateke. Adibidez, ziurtapenen berrikuntzak, kontratatzen diren aholkularitza-enpresen laguntzak, eta abar. Funtsezkoa da, zailena ez baita iristea, mantentzea baizik.
- Etengabeko hobekuntzako tresnak ezartzeko lerroak.

ITURGINTZA ETA AROTZERIAKO ENPRESEN ELKARTEEN GALDEKETAK

Nekane Amondarain, Arotzgi-Gipuzkoako arotz taldekoa. Elkartearen helburua da Gipuzkoako lurraldean egurraren industriaren esparruarekin erlazionatutako jarduerak garatzen dituzten enpresen taldeko interes ekonomikoak ordezkatzeta eta defendatzea.

Jesús Soravilla, Eraiki-ko kanpo-ordezkaria. *Eraiki, Gipuzkoako eraikuntza- eta igeltserotza-enpresaburuen elkarte*, Gipuzkoako lurraldean jarduten duten iturgintza eta obra-kontratisten enpresen elkarte bat da. Elkarteko enpresa guztiei informazioa ematen die, garatzen duten lanbide-jarduerarekin erlazionatutako lana, zerga, eta beste edozein elementu eragiten dituzten lege- eta araudi-mailako berrikuntzak jakinarazteko. Gipuzkoako eraikuntzaren sektoreko gainerako gremioekin harremanetan dago etengabe eta makina bat jarduera garatzen dituzte batera, hala nola Gipuzkoan eraikuntza-feriak kudeatzea, K-21 ezarpenak egitea, enpresetan informatika-bitartekoak ezartzea Infogremios proiektuaren bitartez, enpresen interesak erakundeen aurrean ordezkatzeta, eta abar.

Zer proiektu aurkeztu duzu Eraikal-en deialdietan?

Arotzgi: Arotzgi-k Eraikal Sei luzapena (2004-2006) deialdian parte hartu zuen honako proiektu hauekin:

- Laneko arriskuen prebentziorako kudeaketa-sistema bat, eraikuntzaren sektoreko mikro enpresetara egokitua eta K-21 ereduarekin bateragarria.
- Laneko arriskuen prebentziorako kudeaketa-sistema bat ezartzea, eraikuntzaren sektoreko mikro enpresetara egokitua, hogeita bost enpresatan.
- Sektoreko mikro enpresa batera egokitutako ingurumena kudeatzeko sistema baten ezarpen esperimentalak bost enpresatan.

Halaber, "Eraikuntzaren sektoreko mikro enpresetarako gida ekonomiko-finantzarioan" parte hartu genuen. **Eraikal**-en web-orrian duzue eskuragarri.

Eta "Betekizunak eskakizun-mailaren eta produktuaren arabera definitzeko gidaren diseinuan (EB markaketa)" parte hartu genuen *Adc* eta *Cidemco*-rekin batera.

Eraiki: Eraiki-k Eraikal Sei luzapena (2004-2006) deialdian parte hartu zuen. Mikro enpresen hobekuntzarako tresnetan teknikari bati prestakuntza emateko proiektu bat aurkeztu zen. Enpresek euren ikuspegiak alderatzeko mahaiaik antolatu ziren, guztiek batera hobekuntza-prozesu bat martxan jartzeko, eta mahaiaik osatzeko mintegiak antolatu ziren hainbat kudeaketa-sistemari buruz (kalitatea, ingurumena eta prebentzioa).

Zer arrazoi eduki duzu Eraikal-en deialdietan parte hartu ala ez erabakitzeko?

Arotzgi: Dagokigun sektorearen beharrak eta gure elkarreak dituen baliabide urriak ikusita, programaren laguntzak aprobetxatzea erabaki dugu.

Eraiki: Eraikuntzaren sektoreko langileen segurtasuna eta osasuna hobetzeko proiektu batekin hasi ginen Eraikal programan parte hartzen. Mikro enpresekin jardunaldiak eta lan-taldeak antolatu genituen, kudeaketa hobetzera eta obrako segurtasuna hobetzera zuzendutako neurriak ezartzeko.

Zer funtzio eragile betetzen duzue Eraikal proiektuen barruan zuen enpresen ikuspegitik?

Arotzgi: Gure elkarteko enpresa gehienak enpresa txikiak dira, hortaz, indarrean dagoen legeak ezartzen dituen beharrak eta baldintzak betetzen laguntzen die elkarreak beti, gero eta zailagoa baita.

Eraiki: Sektoreko enpresen artean agente eragile gisa egiten den lanaren bitartez, enpresetan sektoreko langileen prestakuntza hobetzeko tresnen hornikuntza egiten da eta, era berean, enpresa horien kudeatzaileei aholkuak ematen zaizkie euren enpresen kudeaketaren etengabeko hobekuntza lortzeko eta sektorea arautzen duen legeriaren etengabeko aldaketetara egokitzeko.

Nola deskribatuko zenuke Eraikal programetan izandako esperientzia?

Arotzgi: Esperientzia ona izan da, nahiz eta errazagoa izan den lana egin eta gure elkartekideen aurrean ezagutzera ematea, **Eraikal**-en dirua justifikatzea eta kobratzea baino. Izan ere, justifikazioa egiteko denbora asko behar da eta gure elkartearen egitura, eta elkarteko enpresena, txikia da.

Eraiki: Sektoreko enpresek hasieratik agertu zuten interesa, eta gaur egun ere interesa dute, langileen segurtasuna eta osasuna hobetzeko tresnak lortzeko. Sektorea defendatzeko egiten dugun lanaren barruan, eta *Eraiki*-k sustatzen dituen ekimenen artean, **Eraikal** programa ezagutzera eman eta indartu da elkartekideen artean. **Eraikal** programen kudeaketa-sistemak zailtasun administratiboak ditu, eta ez da nahikoa malgua mikro enpresek inoietarako proiektuak egiteko.

Zer emaitza lortu duzue agente eragile gisa? Zer emaitza lortu dituzte zure hornitzaileek?

Arotzgi: Orain arte parte hartu dugun proiektuetan, ezarpena egiteko beharrezkoa zen dokumentazioa landu dugu. Hala ere, batzuetan ez dugu lortu dokumentazio guztia osatzea, ez dugulako baliabide nahikoa eduki. **Eraikal**-ek ez ditu diruz laguntzen proiektuko partida guztiak eta elkartekideak berak egin behar die aurre.

Eraiki: *Eraiki*-k bere elkartekideekin lan egin du eta langileen segurtasuna eta osasuna hobetzeko tresnak eskura jarri dizkie elkartekideei. Elkartekideek eskura eduki dituzte tresna horiek eta guztiek erabili dituzte, neurri handiago edo txikiago batean, langileen prestakuntza ziurtatzeko.

Eraikal bezalako ekimenak eraginkorrak al dira Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresetan kalitatea, iraunkortasuna, segurtasuna eta berrikuntza sustatzeko?

Arotzgi: Zaila da alderdi horiek guztiak barne hartzea, batez ere enpresa txikietan; izan ere, gehienek ez dute administratiboki edukitzen plantillan eta, ondorioz, gai hauek guztiak nahiko urrutitik begiratzen dituzte. Horregatik, egoera deritzogu administrazioak proiektuak sustatzeko eta laguntzeko egiten duen lanari. Egia da, modu berean, gehiago lagundu beharko liratekeela enpresa txikiak, egunerokoa kontsumitzaileengandik hurbilen dauden enpresak baitira.

Eraiki: Eskaintzen den produktua edo zerbitzua hobetzeko eta eskaintzen den zerbitzuaren baldintzak hobetzeko bete behar diren arauak –etengabe aldatzen direnak– betetzen direla ziurtatzeko administrazioak pizgarriak emateak eragin positiboa edukiko luke sektorean. Legeak eta araudiak sortzeaz gain, administrazioak sektorearekin batera lan egin beharko luke lortu nahi diren helburuak gauzatzeko.

Nola baloratzen dituzue Eraikal programaren hamar edizioak?

Arotzgi: Gure balorazioa positiboa da: sektoreak zuen behar bati erantzun diogu eta enpresetan ezarpena egiteko balio izan digu. Gure elkarteko kide diren enpresak izan ditugu ardatz une oro eta ondo baieztatu dugu ahalegin oso handia egin behar dugula gure ekimenetan enpresen portzentaje altu batek parte hartu dezan.

Eraiki: Zeharkako parte-hartzea egin da, *Adc*-ren bitartez, **Eraikal** programaren hainbat ediziotan. Gure ustez, mikro enprekin eta gremioekin lan egiten dugun erakundeekiko lankidetzaren pertsonalizatu beharko litzateke gehiago. Mikro enpresa bat hobetzeko edozein sistemaren ezarpenak eragiten duen kostu proportzionala enpresa txiki eta ertain batean eragiten duena baino 5-15 puntu handiagoa da.

Zer alderdi positibo azpimarratuko zenuke Eraikal-etik?

Arotzgi: Proiektu anitzak gauzatzeko ematen duen aukera ekonomikoa.

Eraiki: Eraikuntzako berriazko programa bat da.

Zer alderdi hobe daiteke Eraikal-en?

Arotzgi: Ordainketak egiteko prozedura.

Eraiki: Kudeaketa. Mikro enpresek egiten duten ahalegina hobeto baloratu beharko litzateke. Enpresariak egindako lana baloratu beharko litzateke, kanpo-aholkulariek egiten dituzten lanez gain. Bekak sortu beharko lirateke, hartara, gremio-elkarteetan kudeaketa- eta hobekuntza-neurri eraginkorrak helarazi, ezarri eta jarraituko dituzten bekadunak sartzeko.

Etorkizunera begira zer ekintza-lerro barne hartu beharko lituzke Eraikal-ek?

Arotzgi: Ezin ditugu enpresa txikiak ahaztu eta dituzten beharrei jaramon egin behar zaie, ez baita horrela egiten beti. Gure ustez, horrelako enpresak dira Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa gehienak eta ez daude behar den bezala ordezkaturata administrazioaren aurrean dituzten premiak adierazteko.

Eraiki: Aurreko galderari emandako erantzun bera.

Adc-KALITATEA GARATZEKO ELKARTEAREN GALDEKETA



Carlos Cestero, Adc-empresa kalitatearen garapenerako elkarteko lehendakaria. Adc irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da eta mikro enpresen eta enpresa txikien etengabeko hobekuntza eta kalitate-sistemen ezarpena lortzea du helburutzat. Adc-k kudeaketa-eredua eta K-21 Kalitatea kalitate-ziurtagarria ditu eta horien kudeaketaz arduratzen da. 2008ko urritik, eta Adc eta Cidemco-ren artean akordio batera iritsi ondoren, Cidemco eraikuntzako teknologia-zentroa da K-21 kudeatzeko arduraduna ziurtagarria, berrikuspen eta berrikuntzako prozesuetan.

Zer proiektu aurkeztu duzu Eraikal-en deialdietan?

Adc: Adc-k K-21 kalitate-sistemen ezarpen eta ziurtagarriekin erlazioatutako proiektuak aurkeztu ditu. Horrez gain, hainbat **Eraikal**-etan jardunaldiak antolatu ditu, eraikuntzaren sektoreko segurtasuna hobetzeko neurriak ezagutzera emateko. Zentzu horretan, **Eraikal Zortzi (2006-2008)** deialdian Eraikuntzako Segurtasunaren Gida argitaratu du. Amaitzeko, **Eraikal Bederatzi (2007-2009)** deialdian EB markaketa duten produktuen eskakizun-mailaren araberrako betekizunen gida bat diseinatu du.

Aipatzekoa da, halaber, Adc-k **Eraikal** programaren edizio guztietan parte hartu duela, azken **Eraikal Hamar (2008-2010)** arte. Azken horretan, Adc osatzen duten elkarteek euren gain hartu dute **Eraikal Hamar** arte erakundeak zuzentzen zituen jardueren zuzendaritza.

Zer arrazoi eduki duzu Eraikal-en deialdietan parte hartu ala ez erabakitzeko?

Adc: 1995ean eraikuntzako gremioak kalitate-ziurtagarria bat sortzeko beharraz ohartu zirenean, merkatuko garai hartako proposamenak aztertu zituzten eta K-21 sortzea erabaki zuten. Garai hartan kalitatea kudeatzeko esparruan maila goragoko ziurtagarriak (ISO ziurtagarriak edo EFQM ereduarekin erlazioatutako tresnen ezarpena) lortzeko abiapuntu gisa ulertzen zen K-21 ziurtagarria. Ziurtagarria horrekin eraikuntzaren sektorean ISO ezarpena egiteko beharri erantzuten zitzaion, mikro enpresei kudeaketa hobetzen laguntzen zitzaion eta gainerako lehiakideen artean nabarmentzen eta, batez ere, krisi garaian gero eta ohikoagoa den intrusismoari aurre egiten laguntzen zitzaion halaber.

Gauzak horrela, K-21 sortu zenetik, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak **Eraikal**-en hasieratik laguntza eta babes eskaini die kalitate-ziurtagarria horren ezarpena egin nahi duten eraikuntza-enpresei.

Zer funtzio eragile betetzen duzue Eraikal proiektuen barruan zuen enpresen ikuspegitik?

Adc: Adc-k, eta berau osatzen duten elkarteek gaur egun, "gidatu" dituzten taldeetan parte hartu duten enpresetan K-21 sistemaren ezarpena modu eraginkorrean egiten dela ziurtatzeko lana egiten dute. Horretarako funtsezkoa izan da prestakuntza-ekintza metodologia jarraitzea, ezarpena laguntzeko, tutoretzak babesteko eta talde murriztuak osatzeko.

Adc-k egiten zuen lana *Cidemco*-k egiten du gaur egun eta aldaketa horrekin lortu da eraikuntza-zentro batek duen esperientzia baliatzea, giza bitarteko eta bitarteko teknologiko gehiago edukitzea eta sortzen diren sinergiak baliatzea. Zentzu horretan, sektoreko enpresek nahitaez bete beharreko beste jarduerak batzuekin osatu da K-21 sistema, EB markaketaekin adibidez.

Adc hasieratik saiatu da Euskal Autonomia Erkidegoan eraikuntzaren sektorearekin erlazioan lan egiten duten beste elkarte batzuetara zabaltzen K-21 eredua. Lan horren emaitza gisa, **Eraikal Hamar (2008-2010)** deialdian, *Afogaasca-Arabako iturgintzako instalatzaileen elkarteak* proiektu bat aurkeztu du Arabako sei enpresatan K-21 eredua ezartzeko.

Nola deskribatuko zenuke Eraikal programetan izandako esperientzia

Adc: Adc-k K-21 bidez **Eraikal**-en piztutako interesak, egindako aurreikuspenak gainditu zituen programaren lehen edizioetan. Horren erakusle da Adc bera agertzea lehen lekuetan Sailak erakunde parte-hartzaileei ematen zizkien laguntzei dagokienez. Adc izan da, behar bada, **Eraikal**-en historian enpresa gehien "gidatu" dituen erakundea. Oso zaila eta,aldi berean, garrantzitsua da mikro enpresek osatutako talde bat mugitzea. Are gehiago kontuan

hartzen badugu segurtasunarekin eta eraginkortasun energetikoarekin erlazionatutako funtzioak betetzen dituztela eraikuntzan.

Eraikal sortu zenetik, Saileko zuzendari orokorrak kontuan hartu zituen *Instagi*-ko gerentearen eta K-21 sistema garatu zuen aholkularitza-enpresaren proposamenak, *Adc*-ren izenean, **Eraikal** programako laguntzak osatzeko, eta K-21 merkatuko beste ziurtapen baten antzera aurkeztu zen.

Zer emaitza lortu duzue agente eragile gisa? Zer emaitza lortu dituzte zure elkargokideek?

Adc:

- Enpresa ziurtatuen kopurua guztira: 241 enpresa 2008ko abendura arte.
- Berrikuntza eta berrikuspenen portzentaje altua. 2008ko abenduan 183 enpresa ziurtatu daude.
- Hobekuntza-bide berriak, adibidez: ISO 9001 eta beste hainbat hobekuntza-tresna. 2008ko abenduan K-21 ziurtapena zuten 11 enpresak lortu zuten ISO 9001 ziurtapena.

Eraikal bezalako ekimenak eraginkorrak al dira Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresetan kalitatea, iraunkortasuna, segurtasuna eta berrikuntza sustatzeko?

Adc: **Eraikal**-ek nazioarteko kudeaketa-arauak ezarri ezin dituzten mikro enpresak babesten eta diruz laguntzen dituen unetik, funtsezko programa bat da kalitatea, segurtasuna eta berrikuntza sustatzeko.

Horrez gain, *Adc* barruko elkarteek Estatuko antzeko beste elkarte batzuekin harremanak dituzte eta beste autonomia-erkidego batzuetan **Eraikal** bezalako esperientziarik ez dagoela baieztatu ahal izan dugu. Eta horrek guztia abantaila handia ematen digu lehiatzeko orduan.

Nola baloratzen dituzue Eraikal programaren hamar edizioak?

Adc: *Adc*-k **Eraikal**-en esparruan sustatu dituen jardueretan parte hartu duten enpresek erakutsitako bilakaera, K-21 sortu zuten elkarteek aurreikusitakoa izan dela azpimarratu behar da. Gehienak K-21 ziurtapena duten enpresak dira, oso gutxi utzi dute programa eta zenbaitek ISO 9001 eta "5S" sistemaren ezarpena egin dute eta EFQM ereduarekin lanean hasi dira.

Zer alderdi positibo azpimarratuko zenuke Eraikal-etik?

Adc: *Adc*-ren ikuspegitik funtsezkoa izan da **Eraikal** programa, K21 merkatuan marka gisa aurkezteko eta zabaltzeko.

Zer alderdi hobe daiteke Eraikal-en?

Adc: K-21 sistemaren ezarpena laguntzeko orduan egonkortasuna lortu behar da, alegia, konpromisoa hartu behar da eta **Eraikal**-ez haraindi K-21 ezartzen eta ziurtatzen laguntzeko euskarri sendoa izatera iritsi.

Mikro enpresei ezarpena eta ziurtapena egiten lagundu behar zaie eta sistema mantentzeko eta berritzeko laguntza eman behar zaie. Oro har, ona dela uste dut, baina enpresa gehiago barne hartu beharko lituzke, enpresaren tamaina edozein izanik.

Etorkizunera begira zer ekintza-lerro barne hartu beharko lituzke Eraikal-ek?

Adc: Mikro enpresei berariazko kudeaketa-tresnak ezartzen laguntzea, arloko berrikuntza-jardunbideak ezagutzera ematea, eta abar.